

Preso eta
iheslarien
aldeko
manifestazioa
urtarrilaren
7an

Urratsak emateko garaia da

- **Fraisoro** Gipuzkoako haur baztertuen eta ama ezkongabeen etxe izandakoa
- **Gorputz hezkuntza** Eusko Jaurlaritzak eskola orduak kendu dizkio soinketari
- **Hiriko fikzioak** Komikiaren eta hiriaren arteko harremana erakusgai
- **Pedro Oyanguren**, Txileko Santiagoko Euzko Etxea «Uste baino garrantzi handiagoa du pilotak euskal etxeetan»

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >>



**gizarte
kutxa**
zuegandik zuegana



• **NON ZER** •

2012ko urtarrilaren 8a, 2.305. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Oscar Vizarraga:** «Integrazioa entsalada da, ez purea». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Fraisoro.** Gizarteak baztertutako amen eta haurren etxea. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 5

Pertsonaia

- **Pedro Oyanguren:** «Euskaldun izateko, lehenengo, nahi izatea da beharrezkoa». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Gorputz hezkuntza.** Murrizketak ariketa fisikoari. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Mundua berriro. UXUE APAOLAZA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Komunitatearen garaia.** CARMEN VALOIS / 20
- **Txandan** Disidentziak. EDU ZELAIETA / 20
- **Bestelako** Olentzerori bestelako gutuna. PAKO SUDUPE / 21
- **Hiruko txikian** Herri baten. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Urte berriari jarriak. JOANES ETXEBARRIA / 22
- **Zirtak** Itsasaldia. JOSE INAZIO BASTERRETXE / 23

Erdiko kaiera

- **'Hiriko fikzioak'.** Komiki hiria. IRATXE ESNAOLA / 25
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** UNAI BREA / 29
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30
- **Ihesi Bartzelona.** Begi zolak erretzeko. ARITZ GALARRAGA / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Euskal preso eta iheslari politikoak.** Jendetza espero dute Bilbon, urtarrilaren 7an. MIKEL ASURMENDI / 39
- **KGNZ tresna.** Haur txikien euskara garapena neurtzen. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagitik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Russel auzitegia nuklear zibilaren krimenentzako. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Inma Gomila.** Deustuko alaba, Urruñan ama, gureratutako dama. ARGIA / 50



“Integrazioa entsalada da, ez purea”

Oscar Vizarraga | Hankagorria

Munduan lehengusu gehien duen gizasemea.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Ijito bat komunikabide batean, eta deliturik ez tarteko.

Bai, motel, hori da dagoena. Komunikabide gehienek gauzen alde iluna baino ez dute agertzen. Berriak baino gezurrak zabaltzea dute maite.

Baina ijitoa erruduna da, kontrakoa frogatu arte.

Hori esaten duenak ez daki zer dioen, ez gaitu ezagutzen, oker orokortzen du. Gehiago arduratzen nau, ordea, sinesmen horrek zehazten dituela maiz gure arduradunen jokaerak.

Ados, benetako lapurrak bankari, enpresari handiak direla; horietako bakar bat ere ez ijito.

Oraintxe esan duzu! Eskularru zuriko lapurrak, laborategiko genozidak. Ez dago osoko zuzenketarik eskatzen duen lapur handi, talde terrorista edo partidu politiko ijitorik.

Zer egin du ijitoak, bada, gaizkiaren irudi bilakatzeko?

Ezertxo ere ez! Pentsa, badago gure jatorriaz uste bat: Jainkoak madarikatutako herria omen gara, mundu osoan zehar alderrai ibiltzera kondenatua, eta jazarria.

Izango da elkartzan gaituena handiago dela, desberdintzen gaituena baino.

Ijitoak jende ona gara. Gugana gure bila gertatzen denak esango dizu aurkituak izateko

oztoporik ez dugula ipintzen. Arrisku bakarra duzu: gure kulturaz laketzea.

Beste ezer baino lehen, integratzea eskatzen dizuete; hau da, zuen izateari uko egitea.

Integrazioa, berba maltzurra, terrorismo semantikoa. Integrazioa entsalada da, ez purea.

Zergatik ez sortu Kalo Alderdi Abertzalea?

Bada bat Bartzelona aldean. Hori baino, iruditzen zait gure herriak aktiboki hartu behar-ko lukeela parte politikan.

Lehendakari gisa emango zenuke...

Banaiz, tira, lehendakariorde, Kale Dor Kayiko elkartekoa. Seriotan, ez nuke kontu horiekin denbora galduko: nahiago dut parte-hartze aktiboa, biziarteko errenta baino.

Erromintxelaren koofizialtasuna jar zenezake martxan.

Oraintxe agintari politiko eta akademikoei egin nahi diet dei, munduan bakar, Euskal Herrian soilik jazotzen den fenomeno soziolinguistiko horren ikerketa bultzazaten.

Hori gertatu artean, baina...

Besteekin egin zurekin egitea nahi zenukeena. Eta “beste” horien barruan ijitoak ere kontuan har ditzagula. ■



Fraisoro

Gizarteak baztertutako amen eta haurren etxea

XX. mendean zehar Zizurkilgo Fraisoro etxean jaso zituzten Gipuzkoako haur espositoak eta ama ezkongabeak. Eva García Magriñak liburu batean bildu du arazo gordin horri erantzuteko ia ehun urtez egindako ahalegina.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argazkiak: Kutxa Fototeka



“UMEZURZTEGIAN, goseak oinazea zekarkien oraindik Oliverri eta lagunei: egunean burruntzali bete ahi besterik ez zieten ematen, jaiegunetan ezik, orduan ahiarekin batera ogi zatitxo bat ere ematen baitzieten. Handik hiru hilabetera haurrek janari gehiago eskatzeko ausardia bildu zuten eta, zotz egin

ondoren, Oliverri egokitu zitzaion eskaera egitea. (...) Mutikoa astebetetz gela hotz eta ilun batean giltzaperatu zuten; hantxe eman zituen egunak eta gauak, garrazki negarrez. Soilik jangelan lagun aurrean jipoitua izateko uzten zioten gelatik irteten”. Pasartean aipatzen den Oliverrek Twist du abizena, eta

hitzok Charles Dickensek idatziak dira. Eta horixe da, oro har, zinemak edo literaturak sehaska etxez edo haurrentzako erruki etxez eman duten eta gehienok jaso dugun irudia. Eva García Magriñak, aldiz, *Fraisoro* etxearen historia *Fraisoroko amak*, *Fraisoroko haurrak* liburuan jaso du. Errealitate gordina islatu du, baina tragedia horiek beste modu batera tratatzen hasteko oinarriak ezarri zirela ere azaldu du.

1900ean Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak 20.000 pezetako dohaintza egin zuen sehaska etxe berria eraikitzeko. Hori baino lehen, gehienetan pobreziak bultzatuta abandonatutako haurrak Gipuzkoako tornuetan uzten zituzten –komentueta atarian haurrak modu anonimoan uzteko erabiltzen ziren ate birakarietan, alegia–, eta 1844az geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundia arduratzen zen espositoez –instituzioen esku geratzen ziren haurrak–. Baina inude sarea ez zen nahikoa, baliabideak ere ez, eta haur horien heriotza tasa izugarria zen. XIX. mende bukaeran haurrenganako kontzientzia aldatu egin zen: haurren osasuna eta eskubideak babesteko mugimendua abiatu zen. Gipuzkoako administrazioa ere iritsi zen espositoen alorra hobetzeko nahia, eta aurrezki kutxaren laguntza funtsezkoa izan zen.

Barruko inude gehienak haurra Fraisoron bertan edo ospitalean izandako ama ezkongabeak ziren

Haurren (eta amen) etxea

Zizurkilgo Fraisoro etxeak 1903ko udan zabaldu zizkien ateak Donostiako tornuan zeuden 40 bat umeri, eta beste 14.000 haur inguru pasako ziren handik 1994an zentroa itxi zuten arte. 1913an tornuak desagerrarazi zituzten, abandonuak errazten zituztelakoan. Haurrak Donostia eta Tolosako ospitaletako amatasun geletatik zetozen. Bestela, atarian entregatu behar ziren. Urte horretan, amatasun gela prestatu zuten sehaska etxean bertan, baina berehala txiki gelditu eta 1921ean ama etxea eraiki zuten bestearen alboan.

Eva Garcíaen helburu nagusietakoa emakume horien errealitatea azaleratzea izan da: “Familia-
ren babesa izan zutenek ere, oso egoera gogorra jasan behar izan zuten kanpoan, gizartean”. Ama horien profil jakinik ez du ematen: “Denetik zegoen. Baziren prostituzio mundutik zetozenak eta egoera marginalean zeuden emakumeak, baina ez ziren gehiengo”. Askok besterik gabe senargaiekin harremanak izanda bukatzen zuten Fraisoron. Eta baziren senitartekok edo nagusiek behartutakoak ere.

Kanpoko eta barruko inudeak

Haur jaioberrien elikadura funtsezkoa zen haien biziraupenerako. Esne artifizialak heriotza tasa handitzen zuela ikusi zuten berehala,

Espositoek eta ama ezkongabeei, esker onez


Inklusak aitzindari izan ziren, hein handi batean, haurren osasuna sistematikoki kontrolatzen eta osasun azterketa horien emaitzen inguruko hausnarketa egiten. Hala, puerikulturaren eta pediatriaren hastapenak etxe horietan izan zuten sorburua, eta gero gizarte osora zabaldu ziren.

Ospitaletako erditze-gelek ere badute zer eskertua babes etxe

horiei. 1920ko hamarkada arte soilik haurdun ezkongabeek erditzen zuten ospitaletan, haientzat propio prestatutako erditze gelatan. Ondoren, pobreen erditze zailenak ospitaletara eramaten hasi ziren, eta pixkanaka ospitalean erditzeko ohitura gizarte klase guztietara zabaldu zen.

Eta espositoak esne artifizialaren akuri ere izan ziren. Fraisoron ber-

tan, hasieran edoskitze artifiziala erabiltzea proposatu zuten. Baina behi esne egokitua hartzen zuten haurren heriotza tasa askoz handiagoa zen sehaska etxeetan. Horrenbestez, haurrei inudeek bularra ematea lehenetsi eta bultzatu zuten. Eta, aurrerago, esne artifiziala hobetuz joango zen, haurrentzat kaltegarria ez zen formula lortu arte.



Fraisoro Etxeko hainbat ekipamendu eta “berrikuntza”. Ezkerretik eskuinera: garbitegi mekanikoa; haurren bainuontziak; hidroterapia zerbitzuko tresnak; eta arropategia eta jostintza gela.



ten, esaterako, bakar-kako gelak. Fraisora joateko, arrazoi ekonomikoez gain, sarritan arrazoi “sozialak” zeuden seinale. “Emakume oso gutxik zuten independentzia ekonomikoa”, dio Eva Garcíak, “eta senargaiak eta, batez ere,

aitak erabakitakoari men egitea beste erremediorik ez zuten izaten”.

Haur batzuk kanpoko inudeen edo amen eskutik irten ziren Fraisorotik. 1940an, esaterako, 28 haur irten ziren amarekin, eta beste 48 inudeekin. Gerora inude batzuek haurrak seme-alabatzat hartzen zituzten praktikan—haur biologikoak zituztenek espositoak ofizialki adoptatzeko aukerarik izan ez arren—, baina beste batzuek atzera sehaska etxera eramaten zituzten.

Haur kopuru gehien 1923an bildu zuen Fraisorok: 333 guztira. 1930eko hamarkadan kopuru hori ez zen 200dik jaitsi, eta 1976. urtera bitartean urtero 100dik gora haur pasa ziren handik. Erditze kopururik handiena, aldiz, 1948koa izan zen. Urte hartan 76 haur jaio ziren Fraisoron eta gainerako urteetan kopurua 50 inguruan ibili zen. 1960tik aurrera nabarmen egin zuen behera eta 1968az geroztik ez zen erditzerik izan, kanpoko ospitaleetara eramateko joera nagusitu baitzen.

Espositoen heriotza tasari dagokionez, Gipuzkoako erakundearen datuak oso onak ziren, inguruko inklusetakoekin alderatuta. Amarekin sartu ziren haurren heriotza tasa %0,7koa izan zen 1943an, eta amarik gabe iritsi zirenean, %26,1koa. Bizkaiko inklusako datuak parekoak ziren. Baina Araban amarik gabeko haurren %44 eta amarekin iritsita-koen %63,6 hil zen urte hartan, Madrileko inklusan bezalatsu.

eta, beraz, inudeek haurrei bularra ematea zen egokiena, kanpoko nahiz barruko inudeek. Gainera, edoskitze naturalak sortzen duen lotura afektiboak errazten zuen haurra bularra eman zion amarekin edo inudearekin gelditzea.

Kanpoko inude gehienak baserrikoak ziren, haur biologikoa galdu berriak eta, horregatik, edoskitzeko egoera aproposen zeudenak. Inudeek diru saria jasotzen zuten. 1916an hileko 26 pezeta ordaintzen zieten haur jaioberriei bularra emateagatik, eta haurrek adinean aurrera egin ahala, gutxiago; hala, 5-6 urteko haurrak zaintzeagatik 10 pezetakoa zen soldata.

Barruko inude gehienak haurra Fraisoron bertan edo ospitalean izandako ama ezkongabeak ziren. Administrazioak debalde ematen zizkien erditze ospitalarioa eta haurraren gero-ko gastu medikoak eta diru-laguntza ere eskaintzen zien. Ordainetan, ama etxean erditzeaz gain, haurra bi hilabetez edoski behar zuten. Epea pasata, gehienek Fraisoro uzten zuten, baina baziren etxera bueltatu nahi edo ezin zutenak. Haiek inude moduan geratzeko aukera zuten eta, mantenuaz gain, soldata jasotzen zuten. Fraisoron sartu ahal izateko, gipuzkoarra izateaz gain, baliabide ekonomiko menderkoa izan behar zuen emakume haurdunak. Baldintza hori betetzen ez zutenei bertan egoteko aukera ematen zitzaien, mantenu gastuak ordainduta. Ohorezkoak edo pagatzai-leak zeritzen eta besteekiko pribilegioak zituz-

Ezkerrean, sarrera nagusia eta sehaska etxea. Eskuinean, haurrak ama etxearen atarian jolasean. Sehaska etxea zutik da oraindik, baina ama etxea 1980an bota zuten.

iRuNazarra
TaBERNa • JaTeXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadribus.com

Fraisoroko ama, haur eta langileen testigantza

10.829 espositoaren ama. 1954

"Egunero, goizeko zazpitan meza izaten zen. Inork ez gintuen behar-tzen hara joaten. Nahi zuena joaten zen. Han ez zen inor ezertara behar-tzen. Hori bai, errespetua eta umeak ondo tratatzea behar-beharrezkoa zen. (...) Nik hiru ume neuzkan nire kargu. Bularra nireari eta Fernandito izeneko beste bati ematen nion. (...) Ni han zoriontsu izan naiz eta, handik ateratakoan, babesetik, zu eta zure haurraren bizitzaren kargu egitea salto handia da. Nire gurasoek ni bakarrik bueltatzea nahi zuten, haurrik gabe".



Fraisoroko sukaldea. Bertan egondako ama baten esanetan: "Jaten ere primeran ematen zuten".

11.283 espositoaren ama. 1963

"Garai hartan hura leku marjinala zela sinisten zuen jendeak, baina marjinaletik gutxi zuen. (...) Esan behar dut bi urte haietan haurra adopzioan emateko presioak jasan nituela Diputazioaren bidez, baina nik garbi nuen ez nuela inoiz hori egingo. Hori izan daiteke han izandako esperientziarik mikatzena edo itsusiena. (...) Jaten ere primeran ematen zuten; pentsa, tarteka ardoa ere eskaintzen ziguten! Ez genuen ezeren falta! Nik hangoaz ona besterik ezin dut esan".

3.051 ama. 1974

"Haurdunaldiaren bosgarren hilabeteetan sartzera nindoala erabaki nuen ez nuela herrian gelditu nahi. Herri txikia zen eta jendearen esamesetatik ihes egin nahi nuen (...) Herri txiki bateko presiotik joanda oso leku aurrerakoia iruditu zitzaidan. Tratua oso ona zen eta, han emandako hiru hilabeteetan, gauza asko ikasi nuen: haurrak zaintzeari buruzkoak, hauen dietak nolakoak izan behar duen... Baina denak giro misteriotso batez kutsatua zirudien: nesken arteko girorik ez zen sustatzen, inork ez zuen bere zirkuntantzien berri ez eman ez galde-tzen...".

8.184 espositoa

"Ni, ia denak bezala, bularra eman zidan inude batekin atera nintzen

Fraisorotik egunak nituela, baina 5 edo 6 urterekin Fraisoro Etxera bueltatu ninduten. Zaila badirudi ere, gogoan dut egun hura. Barrena sartu ginen eta han zeuden moja denak. Gogoan dut nola leiho bate-tik ihes egin nahi nuen. Leiho altuak ziren eta ni, haietako batera igota, handik eskapatu nahian. Moja batek handik jaisteko nola hanketa-tik tira egiten zidan oso gogoan dut oraindik. Moja haiek emakume onak ziren. Ni neu, gaizto samarra".

4.512 espositoa

"Ni eskolan konturatu nintzen anai-arreben artean abizen ezberdin ugari erabiltzen genuela eta oso arraroa egin zitzaidan. Etxera bueltan aitari horren galdera egin nion eta berak garbi esan zidan kontua nola zen, anaia J.M. eta biok nondik gentozen eta zergatik. (...) Tarteka, helduak ginela, inspektorea etortzen zen baserrira, gure berri izateko. Gogoan dut herrena zela eta oso gizon jatorra".

10.166 espositoa

"Fraisoron jaio nintzen. Handik hila-bete batzuetara, hidrocefalia izan nuen. Egoera horretan haur gehie-nak hil egiten omen ziren, baina, arazoak arazo, mediku eta mojen

zaintzari esker, aurrera egiten nuen nola hala. (...) Ni hartu ninduen bikotea 50 urteko gizonak eta 30 bat urteko emakumezkoak osatzen zuten. Jo egiten zuten elkar eta, ondorioz, ni ere bai, biek egurtzen ninduten. Pentsa, tximinia gainean arbasta bat zeukaten ni jotzeko! (...) Ama eta..., aita eta..., ez..., niretzat hitz horiek ez zuten zentzu handirik. Ni inork ez ninduen besoe-tan jaso, ezta muxurik eman ere".

Jose Antonio Alustiza (1916-1992), 1951-1986 urteetan mediku zuzendari

"Haurra eta ama babesten saiatu behar dugu, eta ez aita, orain beza-la, aita baita gehienetan errudun nagusia".

Victor Ormaechea, 1986tik mediku

"Ni arduradun izandako urte haue-tan guztietan bi haur hil dira bertan, batek bat-bateko heriotza izan zuen, Down sindromeaz aparte zeuzkan bestelako konplikazioengatik, eta geroago Loistarainen kokatuak ginenean, beste bat Hiesak jota. Edozein gizarte-mailan eman daite-keen heriotza tasaren antzerakoa izan da nik han ezagutu dudana".

Mila Larburu, 1976-1984 urtee-tan langile

"Oraindik gogoan dut, aurreko zelaian, manta baten gainean, ume denak pila bat eginda nire gainean, barrez; edota, haien siesta garaian, amekin terraza eder hartan izanda-ko kafe-solasaldiak: beren egoerari buruz, munduaz... Ama batzuk ber-tan bizi ziren. Haurrak 5 urte izan arte, horretarako eskubidea zuten. Beste batzuk orde, kanpora irteten ziren lanera eta asteburuetan bisi-tan etortzen ziren. Dirua zutenean, taxian agertzen ziren, bestetan dirurik ez eta telefono dei batekin konformatu behar izaten zuten hau-rrek. Horrelakoetan, pena ematen zidan, haurra guapo-guapo presta-tzen genuen bisitarako eta, gero, ama azaldu ez".

Andres Izaskun, bizi osoa espositoei lotuta

Andres Izaskun 1916ko maiatzaren 14an jaio zen. Handik ordu gutxira, Fraisoro Etxean utzi zuten. Urtebete zuela, Oarsoaldeko senar-emazte batzuek jaso zuten, eta 1922an Andresen harrera patentea gauzatu zen. Baina 1925ean Andresi tuberkulosiaren oinarria zuten tumore batzuk diagnostikatu zizkioten aldakan. Orduan, familiak Andresen orde bestea haur bat eskatu zion Probintziako Espositoen Batzarrari (PEB), eta, eskaera onartuta, Andres erakundearen kargu gelditu zen bigarrenenez.

Ospitalean bost urte eman ondoren, Tolosako Errukietxera eraman zuten. Ikasle ona izaki, Donostiako Lanbide Eskolan matrikulatu zuten lehenik, eta gero Iruñekoan sartzen saiatu zen.

Baina 1936an, gerra piztu zenean, 20 urteko gaztea Errukietxera itzuli zen. Hango espositoen egoera gordina ikusita, hura aldatzeko ahal zuen guztia egingo zuela erabaki zuen. Hala, 1941ean PEBn idazlari lanetan hasi zen, garaiko espedienteak kontu handiz eta xehetasun osoz osatzen

eta zaharrak erreskatatzen. Handik hiru urtera agente ikustari izendatu zuten, eta 1955etik 1981era zerbitzuko ikuskatzailea izan zen.

Bulegoko lanak sekula baztertu gabe, haurtzaroko gaixotasunak herren utzitako gizonak Gipuzkoa osoa ibili zuen, herriz herri, baserri baserri, askotan oinez, haur baten eskaera egiten zuten ezkontideen eta hartutako haurren kontrola egiteko. Eta etxera iristean ere ez zen haren lana amaitzen, espositoak eta amak maiz etxera joaten baitzi-

tzaizkion aholku eta babes eske.

Eva Garciak funtsezko iturri izan ditu Andresek osatutako txostenak, ez soilik datu guztiak jasotzen zituelako, baita lehenago dokumentu ofizial hotzak zirenak xehetasun eta inpresio sentiberez bete zituelako ere. Egileak liburuan dioenez, “gizon ulerbera zen; ikusi besterik ez dago informetan amei eskaintzen zizkien esaldietan, bakoitzaren nortasunaren alde positiboa islatzeko egindako ahaleginak”.

1992an zendu zen Andres Izaskun, 6.397 zenbakidun espositoa.



Fraisoro Etxearen 75. urteurrenaren ospakizuna, 1978an. Erdian, jantzi beltza soinean, Andres Izaskun; haren eskuinean Petra emaztea eta Sagrario alaba. Ezkerrean, betaurrekoekin, Jose Antonio Alustiza, mediku-zuzendaria.

“Luxuzko” etxea baztertuentzat

Fraisoro, inguruko inklusak baino hobea zela esan nahi al du horrek? Fraisoron sartutako amen jatorriak ere antzeko ondoriora eraman gaitzake, probintziaz kanpokoak zirelako. 1930-1950 urteetan soilik amen %64 ziren gipuzkoarrak; %13,9 nafarrak ziren, %4,6 Bizkaitik etorritakoak, %2 Valladolidekoak eta beste %2 Frantziako Estatukoak.

Askok goraiatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzua, esaterako, Jose Maria Salaverria idazleak. 1910ean ABC egunkarian argitaratutako artikulu batean, Fraisoro jauregitzat zuen. Bere esanetan, sehaska etxea bisitatzen zuten jaun askok beren seme-alabak hantxe uzteko eragozpenik izango ez luketela zioten. “Marmola, iturriko ura, airea eta argia, xukadera garbiak, estukozko zoruak, horma bernizatuak; dena da garbia, aberatsa, oparoa eta bikaina Gipuzkoako Sehaska Etxean”.

Baina artikuluak aurrera egin ahala, idazleak eraikina albo batera utzi eta haurrei errepara-

tzen die; “oinazearen seme-alabak” dira haren-tzat. Amaitzeko, haur horientzat etorkizunean erruki bihozberagorik egongo ote den galde-tzen dio bere buruari, ez ote den errukitsua-go haurrei oinazea biziarekin batera kentzea, horrela bizitzera kondenatzea baino.

Baina, haien onerako, Gipuzkoako Foru Aldundia ez zen uste berekoa.

Eva Garciak dioenez: “Dena ez zuten ondo egingo, gaur egun psikologian dugun ezagutza ere ez zuten, mugatuta zeuden”, baina, oro har, instituzioen, sendagileen, Karitateko alaben, eta han aritutako langile gehie-n borondatea goraiatzatzen du, beti ere amen, haurren eta adopzio familien eskubideen

arteko oreka zailean. “Nahiz eta perfekzio-tik urrun egon, garai hartako gizarteko izaera erlijiosoa ere kontuan izanik, nire ustez, txu-kun samar kudeatu zituzten zeuzka-ten baliabideak. Arazoa ez zegoen Fraisoron, arazoa gizartearena zen, Fraisoron ezkutatu nahi izan arren”. ■



“Nahiz eta perfekzio-tik urrun egon, txukun samar kudeatu zituzten zeuzkaten baliabideak. Arazoa ez zegoen Fraisoron, arazoa gizartearena zen”

EVA GARCIA MAGRIÑA

Pedro Oyanguren

«Euskaldun izateko, lehenengo, nahi izatea da beharrezkoa»

Santiago Txileko Euzko Etxeko arima da. Hanka bat du Txilen, bestea Euskal Herrian. Hogeita lau joan-etorri ere egina da handik hona, hemendik hara. Txileko euskalduna. Izan nahiaren indarra.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Pedro Oyanguren...

Oyanguren Cabrero, mallorcar jatorrikoa amaren aldetik. Eta andaluzar, haren amarenetik, baina deitura bizkaitarrak zituen. Santiago Txilen jaio nintzen, 1946an, Loiola kalean. Kale mordoa daukagu, bostehunen bat, euskal izenekoak, jendea harrigarri bazaio ere. Aitaita genuen Frantzisko, Oñatiko Zañartu auzoko Etxeberri baserrikoa. Amama, Teresa, Garagaltza baserrikoa, aitaitaren herri berekoa. XIX. mendean azken aldera heldu ziren Txilera, 1881ean bata, 1899an bestea. Aitaitak denda izan zuen Santiagoko Alameda kalean, eta behin eta berriz etorri zen Europara, dendarako salgai bila. Hainbeste joan-etorri, umeetako batzuk Txilen jaio zitzaizkien, eta beste batzuk Oñatin. Gure aita Santiagon sortu zen, baina Oñatin ikasi zuen, maristetan. Makina bat oroitzapen bazuen, eta oroigarriren bat edo beste ere bai gorputzean! Maristak, badakizu. Beraren arreba Teresak "Txato" esaten zion, Garagaltzako baserrian eskaileretan behera erori eta sudurreko hezurra hautsi zuen-eta.

Aita Oyanguren, ama Cabrero, euskalduna zu...

Aita Santiagoko Euzko Etxeko zuzendaritzakoa izan zen beti, eta, jakina, hantxe izan ginen gu ere txikitandik, pilotaren inguruan. Pilotak eraman gintuen hara. Uste baino garrantzi handiagoa du pilotak euskal etxeetan, Txilekoan eta Txilekoak ez direnetan, guztietan. Gazteak erakartzeko moduetako bat da. Ez dugu esku-huska jokatzeko, palaz baizik. Tira, gure

aita zuzendaritzakoa izan zen, eta halaxe naiz ni ere. Ez dago beste bat zuzendaritzan nik baino urte gehiago egin duenik. Urte mordoa, 18 urtetik 65 arte, berrogeitaka urte! Eta euskaldunen mundu kongresuetan ere beti izan naiz presente, behin ere ez dut huts egin. Joan den azarokoa bosgarren mundu biltzarra izan dela diote, baina 1982ko irailean ere izan genuen batzarra. Garaikoetxea zen orduan

Nortasun agiria

Pedro Oyanguren Cabrero (Santiago Txile, 1946). Enpresaburua. Santiagoko Euzko Etxeko zuzendaritzako kide zailduena. Aro zahar eta berriko mundu biltzar guztietan izana da. *Vascos en Chile 1520-2005*, *Euzko Etxea de Santiago* liburuaren editore da. Eskarmentu handiko euskalduna Txilen. Aitak erakutsi zion bidea, eta halaxe egin du berak bere hiru alabekin: Amaia Euzko Etxeko kidea da, dantzaria eta pilotaria, eta euskara ikasle. Elvirak kargu politikoa izan zuen Kontzertazioko Gobernuan, begirale izan zen Amerikako Estatuaren Erkundearen, euskaraz daki eta hango eta hemengo euskaldunen artean zubi lanak egin ohi ditu. Palmira Euzko Ikaskuntzako kolaboratzaile fina da, Ainara izeneko neskatilaren ama. Oyangurendarrak Santiagon, euskaldun belaunez belaur.





lehendakari. Argentinako halako euskal erakunde batzuk gonbidatuak zituzten, nonbait, Euskal Herrira joateko, eta Garaikoetxeak ontzat eman zuen ideia, baina esanez leku guztietako ordezkariak gonbidatu behar zirela. Bilkura moduko haren ideia berraztertu zuten, eta diasporan ziren erakunde guztietako ordezkariak gonbidatzea erabaki zuten. Garai-koetxeak hala nahita. Eta harrezkero, lau urterik behin egin ziren bilkura haiek. Hala ere, bosgarren mundu kongresua izan omen da azarokoa... 1957an egin zen lehenengoa, Parisen, eta harrezkero hainbat eta hainbat egin dira. 1975ean, Argentinan. Gero dator 1982koa. Beraz, egin da zer edo zer, oraingo bost hauek baino lehen...

Biltzarraren kariatara zatoztenean, hedabideetan beti ageri zarete fandangoan, noiz Donostiako kalean, noiz Arabako upelategian.

Euskal etxeetako ordezkarien artean badira Euskal Herria ezagutzen ez dutenak, fisikoki ezagutu, esan nahi dut. Ez dira bertan inoiz izanak. Hortaz, lehenengo bizpahiru egunetan, Euskal Herria erakutsi ohi digute beti agintariak, txangoak eginez. Bazterrak ikustea da, batetik, eta bateko eta besteko euskal etxeetako ordezkariok elkar ezagutzea, bestetik. Bi helburu horiek dituzte Euskal Herrian barna egiten ditugun bidaiek. Jakina, gauzarik politenak, ikusgarrienak erakusten dizkigute.

Biltzarrean egiten duzuen gogoetaren berririk gutxiago heltzen zaigu.

Biltzarrean ez da gogoetarik egiten, ondoko lau urtean zein egitasmo abiaraziko dugun erabaki baizik. Egitasmo horien barnean, lehenta-

Aire armadaren euskal etxea

"Garai batean, aire armadako bi jeneral gure pilotalekuan jokatzin hasi ziren, gure lagun palestinar jatorriko batekin batera.

Baten batek esan zuen zuzendaritzan: 'Eta zer izan behar da baldin jeneralok kuarteleko ofizialak gonbidatzen

badituzte pilotan jokatzera? Laster da euskal etxea aire armadaren erakundea!'. Eta sasoi bateko arauari lotu gintzaizkion, badaezpada. Alegia, bazkide aktibok erabakitzen dugu euskal etxearen nondik norakoa.

Bazkide laguntzaileek libre dute sarrera, baina boto eskubiderik ez dute. Geure burua babestu beharrean gara".

sunak seinalatzen ditugu, eta euskal etxeak funtzionatzeko moduak ere zehazten, ekin-tzak. Haiek era batera edo bestera gauzatu, euskal etxeek askatasun handia dugu, eta biltzarrean bertan ere zernahi azaltzeko aukera osoa dugu, hor ez da mugarik. Besterik da euskal etxe guztiak bat etortzea. Nik ez diot aitzakiarik jarriko biltzarrari, nahiz eta biltzarra egin aurretik gustura hartuko nukeen denbora gehiago izatea, ekintzak zehazteko batik bat. Izan ere, atzeritik hona etorri eta, egun batean, aurkezpenak; bestean, haien zehaztapena; hurrena... Zaparrada handia da, eta ezin ideiak norberaren barnean behar den bezala pausatu. Beharbada gutxi da hiru egun, baina diru asko da hainbeste ordezkari hona biltzea, hemen edukitzea. Eta dirua biltzarra egiten gastatuz gero, ondoko diru-laguntzak txikiagoak izango dituzte euskal etxeek. Neurtu egin behar.

Zer diozu hedabideek jartzen dizueten arreta- ren inguruan?

Oraingoan, besteetan baino arreta txikiagoa jarri digutela iruditzen zait. Kasu handia egin digute, hala ere, baina neurri apalagoan. Egoera politikoaren ondorio izan liteke, alderdi bat kendu Jaurilaritzatik, beste bat jarri... Ikuspegi ezberdina, beharbada. Uste dut oraingo arduradunek ez zutela atzerriko euskal etxeetan egiten den lanaren kontzientziarik. Nire irudipena da. Uste dut oraintxe ari direla jabetzen zein potentzialtasun dagoen kanpoan, biltzar- rrek haiei begiak irekitzeko balio izan duela uste dut, baina beranduegi. 1957ko Lehen Mundu Biltzar hartan bertan, Txileko ordezkariak horixe proposatu zuen, bulego-

ak irekitzea han eta hemen, kanpoan diren euskaldunen artean lotura egiteko, indarrak metatzeko, era guztietako harremanak gauzatzeko. Sarea sortzea zen asmoa.

1957ko asmoa, diozunez. Sortu da sarea?

Gurean, Txilen, oso ondo josita dago. Lanean hasi ginenean, ordezkariak izatea ere legez galarazita zegoen. Kanpo harremanak espainiar estatuaren kontuak ziren. Bruselako bulegoa ireki zutenetik, berriz, handik jo dugu. Garapenerako Euskal Txiletar Fundazioa izan genuen guk garai batean, baina hemen egoera politikoa aldatu zenetik, fundazioa indargabetu egin da poliki-poliki, eta gaur egun kasik ez da fundaziorik. Beste herrialde batzuetan ere saiatu ziren zer edo zertan, baina ez dakit asmoa gauzatu duten. Ardanza lehendakari zela, Txilera etorri zenean aurkeztu genion fundazioaren asmoa. Beraiek egiten ez bazuten, geuk egingo genuela esan genion. Pentsatu zuten, eta baietz erantzun ziguten, baina Txilen ez ezik, Venezuelen, Mexikon, AEBetan, Argentinan eta beste non edo non ere fundazio gisakoak abiaraziko zituztela. Eta egin zuten.

Duela zortzi urte, juduak eta armeniarak izan ziren gonbidatu. Oraingoan, Galiziako, Katalu-

Pinochet Ugarte

"Saso batean, ETArekin identifikatzen zuten euskalduna izatea Txilen. Distira galarazi zigan horrek. Gainerakoan, izen ona izan dugu beti. Behin, Plentziako alkatea etorri zen Txilera, eta Pinochetekin gertatu zen ekitaldiren batean. Plentziakoak Pinocheti, bigarren deitura euskalduna zuela, Ugarte, eta diktadoreak ezetz, ez zuela 'deitura bat euskalduna', bera euskalduna zela, vasco. Denetarikoa aleak ditugu".

niako eta Espainiako diaspora arduradunak mintzatu zaizkizue.

Nork antolatzen duen biltzarra. Dena dela, bata etorri zein bestea etorri, haien diasporak zertan diren ikastea da kontua, eta haien mailara iristeko zer beharko genukeen aztertzea. Horixe da oraingo gonbiten arrazoia. Duela zortzi urteko gonbitena zen, berriz, atzerrian zein potentzialtasun garatu arakatzea.

E-posta bidezko mezua jaso nuen biltzarraren sasoiari, itsasoz bestaldetik. Hemen zen herrialde hartako ordezkariak, baina han euskal etxea itxia dute, horretarako bilkura formala egina. Zioen, aurrekoetan, ponentzia bat landua ekarri ohi zutela euskal etxeetako ordezkariak, ekin-tzen zerrenda, bazkideena... Aurten, esku hutsik etorri direla herrialde hartatik.

Bai, hala izan da. Oraingo eta lehengo biltzar antolatzaileek ikuspegi ezberdinak dituzte.

Txileko kasuan, euskaldunak ez ezik, espainiarrak ere gonbidatu zituzten oraingo antolatzaileek.

Estadio Españolekoaz ari zara... Euskal giza taldeetako kide da orain. Bestelakoa du izena, baina horren izenpean ezagutzen dugu guk, Estadio Español. Espainiar etxea da, berez. Bertan, asturiarrak, errioxarrak eta, askoren

EINSTEIN vs. BOHR

MUNDUA ULERTZEKO BI MODU

Albert Einsteinek ez zituen onartu mekanika kuantikoaren ondorio batzuk, baina oraindik ez da frogatu ondorio horiek faltsuak direnik. Niels Bohr-ek, aldiz, defendatu egin zituen, eta eztabaida luzeak izan zituzten. Bi genioen arteko eztabaidak ulertzeko liburu egokia da hau.

Zizpiak

QUANTUM EINSTEIN, BOHR
eta errealitatearen izaeraren inguruko eztabaida handia.

Egilea:
Manjit Kumar

ELHUYAR
edizioak

WWW.ELHUYAR.ORG/EDIZIOAK

Zelai haundi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa) Tel.: 943 36 30 40 · www.elhuyar.org

Gipuzkoako Foru Aldundia

GALDE SHORTA

Ritxi Lizartza galdezka

Nola bizi duzue abertzaletasuna Txilen?

Hemen baino garbiago. Hemengo alderdi politikoez duten borroka hara ez eroaten saiatzen gara. Etenak ekarriko lituzke.

Bake prozesuaren aldeko aldarrikapenik ez zen izan azaroko mundu biltzarrean.

Ezin izan, ez zelako adostu, ezin aldarrikapen bateraturik adostu!

ETA isildu ondoren...

Esperantza. Abertzaleek bat egingo duten esperantza. Hori lehenengo. Gero geroakoak.

Atzerriko euskaldunak zein ekarpen egiten dio Euskal Herriari?

Era guztietako harremanak bideratzen laguntzen du, bai merkataritzakoak, kulturakoak, politikoak. Horretan saiatu zen Euskal Txiletar Fundazioa.

Euskara unibertsitatean da, Txilen.

Lau unibertsitateetan eskaintzen dira euskara eta euskal kultura ikastaroak. Euskal Herria ezagutarazteko modu bikaina.

Hemengoak badu hango berri?

Merkataritza harremanetan ikusi dugu. Zenbait enpresaburu lanean, Txilen, eta ez zekiten SPRI han lanean ari zela. Hemengoak ez daki hango berri.

Mundu biltzarrearen antolatzaileak agintari berriak izatea, ez da behin eta berriz zerotik hastea bezala, nekagarria?

Baina hastea! Urratsa da beti. Eta ez da neke kontua, konstantzia baizik.

Gure pilotariak mundu txapelketetan Frantziaren eta Espainiaren izenean dabilta.

Euskal federazioa nazioartekoan ezin sartu izan genuen. Hortik dator arazoa. Espainian ezinezko da gaia mahai gainean jartzea.

Euzko Etxeko ondoko belaunaldiak...

Gero eta errazago da ondoko belaunaldiak euskaldun izatea. Borondatea da kontua.

Santiagooko Euzko Etxea hemendik 50 urtera...

Orain baino handiago ikusten dut. Ilusioa da beharrena.

Euskal etxeak enbaxada politikoak omen. Horixe akusazioa.

Herrialde batekin harremanetan izateko bidea dira politikariak. Horra politika.

Identitatea indargabetzen saiatzen dira alderdi askotatik.

Eta, aldiz, identitate huraxe indartzen saiatzen gara gu.



artean, euskaldunak ere biltzen dira. Duela bi urte eman zioten euskal etxeari dagokion aitortza ofiziala. Euskal etxe da harrezkero. Argentinan, Buenos Aireseko nafar etxeak 100 urte betetzen zituela eta gonbidatu zuten azaroko biltzarrerara. Harrigarria, alde batetik. Dena dela, herrialde bakoitzak erabakitzen du ordezkartitza, eta lehendakariak badu zenbait gonbita egiteko eskubidea. Beraz... Dena dela, gobernu aldaketa izan zela-eta, uste nuen oso gaizki pasatu behar nuela, aldaketarengatik, alegia, baina ez naiz horretaraino gaizki ibili ere! Ondo pasatu da, buruan zer nekarren kontuan hartuz gero. Eta, beti bezala, oso ondo hartu gaituzte leku guztietan.

Zer duzue atzerrian –Txilen, esaterako– euskaldun izatea?

Hain da historia luzea! Laurehun urte ere badira, aro ezberdinak bizi izan ditu euskaldunak Txilen. Gure artean pilotarekin lotzen dute askok euskaldun izatea. Izatez, gazteak erakartzeko indarra da pilota. Gazteak lotzekotan, edo pilota, edo dantza-taldea. Baina askori ez zaio dantza gustatzen. Aldiz, gazte guztiei gustatzen zaie kirola egitea. Pilotan hasten bada, gustatzen bazaio, beti izango duzu, bizi guztiko, euskal etxearen inguruan. Euskal etxe

Euskara

“Euskara indar hartzen ari da. Urte askoan, nola edo hala erakusten saiatu gara, baina urte batzuetatik hona HABE arduratu da horretaz. Irakasleak trebatu dituzte, on line ikastaroak prestatu dituzte... Besterik da egoera. Urrats handia egin da. Dena dela, pilota, dantza, euskara... Euskaldun izateko, lehenengo, nahi izatea da beharrezkoa”.

zahar guztiek dute, edo izan dute, pilotalekua. Estadio Españolak ere, esaterako, frontoia du. Nafar batek egina, hori ere esan behar da.

Familiaren parte, euskaldun izateke. Eta belaunez belauneko transmisioa?

Kasu bitxi asko daude horretan. Belaunaldi arteko jauziak ere badira. Gogoan dut bat, Errazuriz izeneko batena. Errazuriz oso da izen zabaldua Txilen 1736tik hona, Frantzisko Xabier Errazuriz hara zenetik. Badira kardinalak, gotzainak, presidente ohiak, metro irteera ere bai, Errazuriz izenekoak. Gure lagun horren kasuan, Frantzisko Xabier Errazuriz da, belaunez belau izen bera jartzeko ohitura izan dute-eta haien familian, bada, halako batean, argia egin zitzaion, euskara ikasi behar zuela, eta ikasi zuen! Belaunaldi jauzi ikaragarria eta gero! Kasua da hori. Normalena, gurasoek beren seme-alabak euskal etxera eramatea da, txiki eta gazteek han pilotan edota dantzan egitea, zaletzea, lagunartea egitea, eta euskaldun izatea Txilen. Baina, esan dizut, bestelakoak ere badira, bat-batean beren sustraian bila abiatzen direnak... Denetarikoz gazteak ditugu. ■



Murritzketak ariketa fisikoari

Gizakion garapen orekatua eta osoa lortzeko, ezinbestekoa da jarduera fisikoa. EAEko hezkuntza curriculumak berak hala aitortzen du... teoriarik, praktikan %40 murriztu baititu gorputz hezkuntzari eskainitako eskola orduak, beste hainbat ikasgaiaren mesedetan. Ikerketa batek agerian utzi du zenbateraino gutxitu den ariketa fisikoa ikastetxeetan, Euskal Herriko beste lurraldeekin eta Europako herrialde ugarirekin alderatuta.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkiak: Luis Larrañagak utzia

GORPUTZA eta ahalmen fisikoak lantzeko, norberaren autonomia, ekimenerako gaitasuna, sozializazioa... bultzatzeko, funtsezko jarduera da gorputz hezkuntza. Urteen poderioz, ikastetxeetan garrantzia lortu duen arloa da, garapen integralerako nahitaezkoa. Nafarroa, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean, Europako joerari jarraiki, jarduera fisikoari leku duina eskaintzen zaio eskolan

—ikusiz azken orriko koadroa—, baina bestelakoa da egoera EAEn.

1996an, EAEko Gorputz hezkuntzako irakasleen lehen promozioarekin batera, erabaki zen arlo horri astean gutxienez bi ordu eta erdi ematea Lehen Hezkuntzako ordutegian (6-12 urte) eta bi ordu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (13-16 urte). Kopuru hori egon da indarrean, Eusko Jaurlaritzako Hez-



Bizitza fisiko eta intelektual osasungarria izatea, erabakiak hartzen laguntzea, norberaren mugak eta aukerak ezagutzea, gorputz espresioa lantzea, emozioak adierazi eta kontrolatzea, harremanak hobetzea... dakar gorputz hezkuntzak.

kuntza Sailak 2007ko Hezkuntza Dekretua atera zuen arte. Kuriosoa da dekretuak nabarmendu egiten duela soin hezkuntzaren inportantzia –berdin aurtengo Jarduera Fisikoaren Euskal Planean–, osasuna eta jarduera fisikoa era sistematikoan lantzeko, aisialdia indartzeko edota kirol jardunean bestelako ekintza osagarriak txertatzeko deia eginez, baina praktikan %40 murrizten ditu arlo horri eskainitako gutxieneko orduak: ordu eta erdi ematen dio astean. “Gutxieneko ordutegitik abiatuta, astean balizko bost ordu inguru ditu ikastetxe bakoitzak autonomiaz jokatzeko eta nahi dituen eremuak indartzeko, baina dekretuan jada arlo baten ordu kopurua %40 gutxitzen baduzu, klaustroak nekez mantenduko du aurretik finkatuta zegoen bi ordu eta erdiko kopurua”, dio Luis Larrañagak, Sohat Soin Heziketaren Aldeko Taldeko kide eta Gorputz hezkuntzako irakasleak. Hala, Sohatek hiru urtetan egindako datu bilketaren arabera, ikastetxeen %25 inguruk lehengo ordutegi zaharrari eutsi dio (bi ordu eta erdi), beste %25 bi orduren baitan dabil, eta gainerako %50ak dekretuan zehazturikoa edo gutxiago eskaintzen dio Gorputz hezkuntzari.

Galtzaile eta irabazleak, PISAren aitzakian

Dekretuaren ordutegi banaketak Atzerriko hizkuntza (ingelese) eta Informatika hobetsi ditu, eta Gorputz hezkuntzari eman dio astindu handiena, Musika eta Plastikarekin batera. Larrañagaren ustez, marketin operazioa da, zientziak eta ingelese indartuz PISA azterketan eta gisa horretako ebaluazio diagnostikoetan emaitza hobeak lortzeko esperantzan. Irakasleak azpimarratu duenez, ordea, Nafarroan erabaki zuten gorputz hezkuntza ez kaltetzea –50 minutuko bi saio egiten dituzte astean–, eta PISAren eta ebaluazio diagnostikoetan antzeko emaitzak izan dituzte, zenbait arlotan baita EAEn baino hobeak ere. Espainiako Estatuan, batez beste bi ordu eta 13 minutu eskaintzen zaizkio astean ariketa fisikoari. “Badirudi hizkuntzek, matematikak eta halakoek baino ez dutela bultzatzen arlo kognitiboa, baina ez da hala, egun jakin badakigu ariketa fisikoak izugarritzko onurak dituela gaitasun kognitiboak garatzeko orduan, gehienbat 7 eta 9 urte bitarteko haurrengan. Gaitasun artistikoak eta emozionalak (enpatia, harremanak egiteko ahalmena...) ere garrantzitsuak dira. Bere osotasunean ikusi behar dugu pertsona eta



Gorputz hezkuntzako irakasle batek kontatu digunez, lan egiten duen eskolan ordubeteko saioa ematen du astean, baina 20 minutu behar dituzte kiroldegira joan eta handik itzultzeko.

atzetik betiko eztabaida dago: zer nolako ikasleak nahi ditugu? Ikasgai *maria* direlakoak era sinbolikoa baino ez badira lantzen, curriculumari berari eta gurasoei iruzurra egiten diegu, norabide bakarrean bultzatuko baitugu haurren garapena eta hutsuneak lehenago edo geroago azaleratuko dira”.

Azken finean, arazoa sakonean dagoela deritzo Larrañagak. Konpetentziak edo gaitasunak landu behar direla dioen diskurtsoa geroz eta hedatuago dago egungo curriculumean eta iraultza handia da metodologikoki, baina praktikan ez omen da ematen. “Lehen testuingururik eskaini gabe agintzen genizkien ariketak ikasleei, adierazi gabe zertarako eta zergatik izango zaizkien lagungarri bizitzan, eta

oraindik ere eskema horrekin funtzionatzen da sarri. Programazio zaharretan ‘ahalmenak’ jarri behar zen lekuan ‘gaitasun’ hitza idatzi eta kito, Matematika klasean 40. orrialdea lantzen jarraituko dute ikasle denek une berean, bakoitzak ikasmaita eta erritmo ezberdina izan arren”.

Irakasleen prestakuntza da gakoa, bestela hutsaren pare geratzen da edozein aldaketa. “Ikusten ari gara: ikastetxeetan ez baduzu aurretik erreformaren mamia azaltzen eta beste era batera lan egiten erakusten, gaitasunen hezkuntza sistema hau ere marketin operazioa baino ez da izango azkenean, eta ez barrura begirako benetako aldaketa”.

Hain zuzen, metodologia berriaren filosofia, jakintza aplikatura, pertsona bizitzarako prestatzera hobekien egokitzen den ikasgaia Gorputz hezkuntza da, baina egur gehien berari eman dio Jaurilaritzak, Sohatekoek kritikatu dutenez. Gorputz hezkuntzak dohain baliotsuak irakatsi ditzakeela diote irakasleek, ahalmen fisikoak eta motorrak garatzeko, bizitza fisiko eta intelektual osasungarria izateko, erabakiak hartzen laguntzeko, norberaren mugak eta aukerak ezagutu eta konfiantza eskuratzeko, gorputz-espresiorako, emozioak adierazi eta kontrolatzeko, pertsonen arteko harremanak hobetzeko, motibatuzeko, ikasleen arteko hezkidetzarako, gaitasun komunikatiboak, sozialak eta afektiboak lantzeko, integrazioarako... eta bizi kalitate hobe bermatzeko.

Eskolatik kanpo ere egiten da kirola

Aztertu beharko litzateke egungo ohitura sedentarioek zenbateraino hartu dioten lekua jolasei eta kirolari haurren ordu libreetan. Hala ere, mihi gaiztoek esan dezakete ariketa

Gorputz Hezkuntzarako gutxieneko ordutegia*

Lurraldea	LH 1. maila			LH 6. maila			DBH 1. maila			DBH 4. maila			Orotara (6-16 urte)		
	GH	Guztira	%	GH	Guztira	%	GH	Guztira	%	GH	Guztira	%	GH	Guztira	%
EAE	52,5	875	6	52,5	875	6	70	1.050	6,7	35	1.050	3,3	490	9.450	5,2
Nafarroa	70	875	8	70	875	8	70	1.050	6,7	70	1.050	6,7	700	9.450	7,4
Ipar E.H.**	108	864	12,5	144	910	12,5	108	839	12,9	72	1.108	6,5	1.080	9.160	11,8
Alemania	56	564	9,9	66	827	7,9	66	865	7,6	57	821	7	677	7.598	8,9
Finlandia	57	604,5	9,4	57	781,8	7,3	57	781,8	7,3	-	-	-	513	6.327	8,1
Suedia	55,5	740,5	7,5	55,5	740,5	7,5	55,5	740,5	7,5	-	-	-	500	6.665	7,5
Norvegia	68,2	738	9,3	68,2	738	9,3	68,2	738	9,3	76	950,3	8	706	8.017	8,8
Eslovenia	104	626	16,6	104	797	13	76	897	8,5	-	-	-	846	6.945	12,2
Eslovakia	56	620	9	56	818	6,8	56	818	6,8	56	874	6,4	589	7.614	7,7

*Gorputz Hezkuntzari (GH) eta ikasgai guztiei denera urtean eskainitako orduak alderatuta, proportzioan GH-ri eskaintzen zaion denbora (%).

**Frantziako Estatuan oro har.

Iturria: Siadeco, Sohatek eskatuta.

fisiko nahikoa egiten dutela haurrek aisialdian, eta ez dela beharrezkoa eskolan denbora gehiago eskaintzea. Argudio horrek bere baitan ziria duela dio Luis Larrañagak, hain juxtu curriculumak gehien sustatu duen eremua ingelesa delako, baina akademia pribatuetara haur pila bat joaten da ingelesa ikastera eta eskolaz kanpoko ikintza gisa ere ematen dute ikastetxe askotan. “Kanpoan egiten dutena egiten dutela ere, derrigorrezko hezkuntzari buruz ari gara, ikasle guztiek izan beharko luketen gutxieneko ezagutzaz, ordutegi horren barruan nahi dugun garapen motaz”.

Bestalde, derrigorrezko orduetatik at eskaintzen den eskola kirola ez dago gorputz hezkuntzarekin alderatzerik. Lehenengoak ikuspuntu lehiakorra izan ohi du, talentuak bilatzeko eta bultzatzeko asmoa, neskak eta mutilak banantzen ditu adin batetik aurrera, federazioak daude atzean... eta bestelako helburuak ditu gorputz hezkuntzak, jarduera fisiko anitzagotan –ez soilik kirolean– oinarritua. Jolas-orduarekin konparatzea ere ez dute atsegin Sohateko kideek: ikasgai eta ikasgai artean tentsioak askatzeko da jolas-ordua, eta gorputz hezkuntza ez da ikasgai sakonetan egindako ahaleginen ostean arnas hartzeko ordua, bere baitan balio hezitzaile propioak dituen arloa baizik.

**“Zer nolako ikasleak nahi ditugu?
Gorputz hezkuntza, Musika,
Plastika alboratzen baditugu,
norabide bakarrean bultzatuko
dugu haurren garapena eta
hutsuneak lehenago edo geroago
azaleratuko dira”**

LUIS LARRAÑAGA, SOHAT

Gutxienez bi ordu, bi saio

Azken hiru urte hauetan egindako jarraipen kuantitatiboaren arabera, arestian aipatu moduan Sohat Taldeak baieztatu du ikastetxeen %50ak ordu eta erdira jaitsi duela Gorputz hezkuntzari astean eskainitako denbora. Areago, egiaztatu dutenez, hainbatek ez du gutxienekoa ere betetzen, esaterako ordubeteko saioa baino ez dute egiten astean, eta behin baino gehiagotan salatu duten arren, administrazioak ezikusiarena egiten du. Gorputz hezkuntzako irakasle batek kontatu digunez, lan egiten duen eskolan ordubeteko saioa ematen du astean eta ikastetxean bertan instalazio egokiak ez dituztenez,

20 minutu behar dituzte kiroldegira joan eta handik itzultzeko. Halakoak gerta ez daitezten, gutxieneko ordutegia astean bi orduko izan dadila eskatu die Sohatek politikariei –eta dirudienez, alde dituzte legebiltzarreko alderdi gehientsuenak–. Bi ordurekin, bi saio egin ahalko lirake eta atarramendu hobea aterako liokete ikasgaiari. Gainerako euskal lurraldeetan eta Europako herrialdeetan gertatzen den gisan, jarduera fisikoaren garrantzi teorikoa praktikan ere islatzea nahi dute, azken finean. ■

argia.com Erreportajeaz gain, ikerketa osoaren PDFa webgunean.



TTAKUN (H)ERRENKA

Mundua berriro

E

z ditut aipatu dituzuen pelikulak ikusi, beraz, ez nago euskal zinemaz grazia txikiena ere osatzeko moduan

Aramburukeriaren bat egin gabe; orokorkeriara pasatzera nindon, gero, ikusi dudak azken pelikularekin hasiko zen artikulua ontzeko, Albako Cayetano eta Marinaledako José Sanchezen sainetea, eta amaitu, Martin Garitano eta Jose Luis Bilbaoren aktuazioaren aipamen batekin amaitzen zena, baina irakurri nuen, nahikoa zorabiatutik nentzela zinema, artea, nazio eraikuntza —“ektazio protestantea” zioen Borgesek?—: “Arteak gehiago du zerikusia urraketaekin, distortsioekin, aurreritziak kolokan ipintzearekin, herri baten kohesioa indartzearekin baino”. Artea, eta kasik klasearen aurrean mundua esplikatutako behar banu bezala larritu nintzen, eta artikulua irakurri ondoren “ados nago” miresgarri batez, miresgarri mundua esplikatzen zekien aingeru baten aurrean nengoelako (ez zen Felix de Azua), erantzun zidan lagun bat tentatu nuen, transkribatu ezin dudak elkarriketa batera eramanez ninduen, Arteak bezalako zerbaitekin hasten garen bakoitzean, bakoitza bestearen iritzira eta alderantziz mila bider pasa ginelako, eta ez litzateke ulergarria izango.

Artea zer den esateari ez genion asko dedikatu, ia beti bezala publizitateaz hizketan amaitu genuen, eta zinera pasa ginen. Biotako bat, gabonak bakarrik pasa behar zituen *Qué bello es vivir* ikusiz ari zen idazten, irauteko, izateko, zineak ezer urratu behar ez duenaren frogak. “*Amelie* pelikula da ez?” galdetu zidan lagunak, eta arteak ez daki, baina zinemak behar duena publiko asko dela dio, garestia delako, hori edo subentzioak, kausa nazionalak asko inspiratzen dituenak bestalde. Publizitatea berriro ere, Woody Allenek *Vicky Cristina Barcelona* filmatzen duenean bezala. Eta Beñatek jasotzen zuen Josu Martinezen aipuren harira, “zelu-

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padron



Sarasola

loideak ispilu efektua eragiten duenean ikusleengan, de facto, herri bat dago hor; bere esperientzia, emozio eta kode konpartituekin”, Scorseseren bat bidali zidan, ez baitu aukera galtzen “herria” elizarekin parekatzeko, zioena, elizak eta zine batek antzekotasun asko dutela, jendea esperientzia

komuna izatera biltzen delako beraietara, “zineak inkonsziente kolektiboaren bilaketa zaharrari erantzungo balio bezala da. Guztiok memoria komun bat izateko dugun behar espirituala asetzen dute”. Tira, nik arriskuak ikusten nizekion baieztapenari autokonplazentziaren bidean, “hori zure gustua da, ez iraun ahal izateko baldintza bat”, eta Beñaten ideia errepikatu nion, zinearentzat ez dela ona komunitate baten defentsara makurtzea. “Hori izango da pelikula txarrak badira, zeina komunitate horrentzat izango den txarra, ez alderantziz”. Nik pelikula bakarka ikusten ditut etxean eta ispilu efektua Downton Abbeyko Violetek bezalakoek sortzen didate, Granthamen kondesa alarguna, ez nazioa, ez eliza.

Aingeru miragarriak amaitu zuen irainduz “adimena non sartzen duzun oso kontuz ibiltzen zarete batzuk —seguruenik zakila non sartzen duzun baino gehiago—”, eta injustua iruditutako zitzaidan telebistan Eurovision ikusten nuen bitartean, eta ez zakilik ez dudalako, bera zelako zine urratzailearenarekin ados zegoena! Euskalduna Jauregitik ari ziren emititzen, baxuak beti bezala desafinatzen zituzten, baina

denek ziruditen Isabel Pantoja, una gran artista edo “*tonadillera española de mierda*”. Nahasturik nengoen; uste dut “ados nago” erantzun zidala Loiuko langilearen erreakzioaren aurrean esan nionean, nik Isabeli oihukatuko niokeela: “¡No vuelvas a cantar *Ojos verdes*, hortera!” Nire aingeruari Conchita Piquer gustatzen baitzaio, eta kale izkinak... ■



«
Artea zer den esateari ez genion
asko dedikatu, ia beti bezala
publizitateaz hizketan amaitu
genuen, eta zinera pasa ginen
»

GORA PRO NOBIS
Asisko Urmeneta



Carmen Valois

IRAKASLEA

Komunitatearen garaia

Imajinatzen dut hartz bat, neguko hilabeteak lotan eman eta gero, esna. Iratzartzerakoan, kobazuloaren sarrerara hurbilduta, aho bete hortz gelditzen da aurrean duenarekin: dena aldatuta dago, ohiko erreferentziak ez ditu topatzen, desagertu egin dira. Bat-batean galduta sentitzen da. Bere fisikari erreparatuta –hain handia, hain ahaltsua–, paradoxikoa da ikustea nola kikildu egiten duen beldurak, nola gutxitu egiten dituen bere gaitasunak.

Iruditzen zait antzeko zerbait gertatu zaigula. Gure imaginarioan ezinezkoa zena, gurean da bete-betean, harrapatu egin gaitu. Alabaina, orain dela gutxi arte, bazirudien munduan zehar gertatzen ari ziren ezbeharrak ez zirela guregana ailegatuko. Sinetsita geunden ez zeukatela zerikusirik gurekin, ahalguztidunak ginela mendebaldeko bazter hauetan, menderakaitz. Eta horrela, nagitasun kontziente eroan, lasai esertzen ginen telebistaren aurrean bapo afaltzen genuen bitartean. Axolagabekeriak begiratzen genien irudiei, berdin Afrikako lurralde ahaztu bateko goseteak izan ala Ekialde hurbileko gatazkak. Guk betiko bizimoduarekin jarraitzen genuen, negu hotzeko gauetan gure etxeetan horko edo hango gas naturalarekin berotzen ginen bitartean.



Esnatu gara, edo hobeto,
esnarazi gaituzte. Eta bizi
dugun egoerak erakutsi digu,
gu ere, ahulak garela: gu
ere ez gaudela salbu
eta beste latitudetan
gertatzen denak
gurean ere
eragina
duela



Baina jada esnatu gara, edo hobeto, esnarazi gaituzte. Eta bizi dugun egoerak erakutsi digu, gu ere, ahulak garela: gu ere ez gaudela salbu eta beste latitudetan gertatzen denak, gurean ere, eragina duela. Funtsean, kosmos bakar bateko elementuak gara eta era sistemikoan eragiten diogu elkarri. Eta talaia horretatik begiratura, ezin diogu bizkarra eman gertatzen ari denari, osotasun horren parte garen heinean. XVII. mendeko John Donne pentsalariaren hitzetan: “Ez da uhartea den gizabana-korik”. Horregatik, komunitatean aritu beharra daukagu, komunitate indartsu bat eratuz, gu zabal bat osatuz.

Imajinatzen dut komunitate bat, non gizaki guztiek bizitza duina izateko aukera duten, non norbanakoek beraingana dagoen onena eskaintzen duten, non ni ez naizen horrek nire begirunea duen. Nago, hori gauzatze-ko, oinarritzko balioak ezinbesteko tresnak direla, hala nola, konpromisoaren bidez jardun, erantzukizunez, elkartasunez, lankidetzan, giza harremanen bitartez sareak sortuz eta ehunduz. Iruditzen zait, elkarri begiratzeko garaia heldu zaigula, irakurle. Eman eskua eta egin dezagun bidea, batera. ■



TXANDAN

Edu Zelaieta



Disidentzia omen da diktaduraren eta demokraziaren artean dagoen funtsezko alde bat. Disidentzia egoteko aukera. Disidentzia horrek bere burua jendaurrean agertzeko eskubidea, pentsatzen duena duin garatzekoa. Izan ere, geure zenbait politikarik maizkara gogoratzen digutenez, diktaduran herritarren pentsamendua erreprimitzen da; demokrazian, ordea, diferentzia (ideologikoa) onartzen da.

Aurrekoa egia izatera, ez dakit zenbat benetako demokrazia egongo diren XXI. mendean, hau da, zenbat tokitan egingo zaion harrera goxoa diferente

Disidentziaz

pentsatzeari. Munduan itzuli bat egitea aski da kontuak ateratzeko: non hartzen da ezberdintasuna demokraziaren oinarritzat? Zein estatutan ateratzen zaio etekina disidentziari?

Aldeak alde, demokrazian bizi garen herritarrok sarri askotan bizi gara ideologia bakarraren menpe, uste baino gehiagotan: demokraziako diskurtso ugariak (erabateko) atxikimena dute xede, denok bat egitea helburu. Adibiderik nahi? Bada, oinarritzko hainbat eskubidetan murrizketak egitea ezinbesteko formula dela sinestartaraztea. Gure hobe beharrez, gainera. ■



Pako Sodupe

IDAZLEA

Bestelako Olentzerori bestelako gutuna

Badakizue Olentzero bat baino gehiago izan ditugula, betiere gure nahi eta ametsak sorraraziak, eta, jakina, haurrek ez ezik helduok ere ezinbestekoak ditugu Olentzeroak, gure pausoak nahi eta amets horietara bidera ditzagun, bidean etsi gabe.

Zuetako askok bezalatsu, Olentzerori esaten diot Otegik kalean behar duela atzotik, eta preso politikoek irtenbide duina gaurtik, denak pixkanaka kalean izan daitezzen, bihar baino gaur hobe. Horrekin batean salbuespeneko legeria guztia erais-tea, eta tortura erauztea.

Olentzero, ez al dugu behar euskal herri-tarrok Espainiako eta Frantziako botere fak-tikoek ezartzen dizkiguten mendekotasun askotarikoetatik aske, geure burua hobeki goberna dezagun? Besteak beste, oso luze doan krisi honek gehien kolpatzen dituzte-nendako eta, oro har, guztiondako politika bidezkoagoak abian jartzeko, langabezia murrizteko eta ongizatean sakontzeko?

Palestinako herria, sahararrak, tibetarrak, uigurrak, txetxeniarrak eta kurduak eta beste hainbat herri zapaldu eta ustiatu ere ez ditzazula ahaztu Olentzero, unibertsoko lur planeta nimitño hau guztiok bertan ego-kiago bizitzeko modukoa egin dezagun.

Lehenago ere esan dut, Olentzero bere-ziari ari natzaiola asmo eta amets onak



DANI BLANCO



Zuetako askok

bezalatsu, Olentzerori

esaten diot Otegik

kalean behar duela

atzotik, eta preso

politikoek irtenbide

duina gaurtik, denak

pixkanaka kalean izan

daitezzen, bihar

baino gaur

hobe



agertzen, gure baitako Olentzerori, denok, zuk, irakurle, eta nik neuk partekatzen dugun Olentzerori, eta ildo horretatik, beste asmo bereziago batzuk ere agertu nahi nizkizuke; ez dira ez zehazki niri neuri edo nire familiari dagozkionak ez, baizik ere euskal komunitatea osatzen dugunoi dagozkigunak.


Zenbat eskertuko nizukeen euskaldun jendea, oro har, gutxi irakurtzera baina bereziki euskaraz gutxi irakurtzera emana den euskaldun jendea, erdal prentsatik askatu eta eskuarki euskal prentsa irakur-tzera etor dadin, gero eta gehiago euskal liburuak irakurtzera, euskara egun baino debekatuago zegoen garaietan —egun ere Nafarroaren zati handi batean kasik debek-tua eta zigortua dela, eta Iparraldean arras gutxietsia beti— banaka batzuen artean sortu zen euskal egarria susper eta heda dadin lau haizeetara eta zazpi lurral-deetara, geroz sutsu eta kartsuago.

Behar-beharrezkoak ditugun asmo eta ametsak Olentzero, denok geure baitan dugun gogoz eta indarrez aurrera era-man ditzakegunak, zinez haiek aintzat hartuak eta lagunduak izate-ra. Iragan urtea ez dakit nola joan zaizuen, heldu dena hobia izan dezagula opa dizueta! ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



ametsa, selekzioa. Nik, auke-ran, bere selekzioa emanen nuke. Euskal Herrikoa hain zuzen. Eta esloganetan sartuta “Euskal Herriaren ametsa bere selekzioa” lehene-tsiko nuke. San Tomaseko txistorra

bezain ohiko bilakatu diguten partidaren aurrean, aur-ten ere jokalarien elkarteak ofizialtasuna eskatu die agintariei, horren alde ezer gutxi egiten dutela salatuz. Izan ere, badirudi Euskadiko Federakuntzari aski zaiola antolatzen duen partidarekin, jokalarien opo-rrak baliatuz urteroko lagunartekoa antolatuz. Eta Euskadi ez da Euskal Herria, Txantrea Iruñea ez den

Herri baten

bezalaxe. Hautatzaileek zera esan dute, holakoak jokatzuz eta irabaziz egiten dela bide. Nago, jokalarien eta hautatzaileen ametsa ez dela zelai bereko, eta ofizialtasuna jokatz-en zelaia hutsik daukagula, ez palkorik eta ez berde-rik. Eta egingo diren manifestazioek gu berotuko bagaituzte ere, ez dituzte politikariak gorituko mar-txan jarri daitezzen, fundamentuzko estrategia plantan eman dezaten, kazeta honetakoek itzul-penik gabeko lana egin dezaten. Ofizial-tasunaz, normaltasuna beharko da, gure selekzioa euskarak bereizi dezan. Ame-tsaren biharamuna nahi dugu. ■



BERTSO BERRIAK

Joanes Etxebarria

Urte berriari jarriak



XDZ

I

Urte berria hor da
hor da urtarrila,
deüs erran gabe jin da
gorderik, isila
ta izan bedi hona
edo biribila
nahi dügün bezala
iragan dadila.

II

Bilboko manifatlat
herria doala
zazpikoa beitüğü
dei bat nazionala
iragarpena betez
nahi den bezala
izan beharko lüke
gaüza kolosala!

III

Urtarrilan dükegü
orano krisia
gogorra izanen da
orano bizia,
aberatsa aberats
pobreak izia
has bedi kapitalen
kontra ihizia!

IV

Eta ipar borroka
institüzionala
aitzina joan dadila
phü egin ahala
nahiz kausitü zerbait
txit probisionala
zabal dezagün gure
bide nazionala!

V

Xiberoarat jitez
gure maskarada:
Aurtenkoarekılan
problema bat bada
ez dea ikusteko
izanen parada?
Edo eüskara dügü
gük ments beharbada?

VI

Finitzeko badüğü
urtebü(rü) bat aurten
urtarril erditsütan
zen Topet erorten,
omenaldi xede bat
deizüet igorten
ea koblak dütügün
Barkoxen ezarten



DOINUA: Xorrotxena



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Itsasaldia

Bada herri ttiki-ttiki bat –ñimiño eta nanoa– lau haizeek astindutako itsasoaren bazter urdinean bizi dena: Kalkuta, Beijin, Sao Paulo, Tokio... hiritzar horietako bazter-
auzo baten tamainakoa. Harroak eta ederrak ditu iparraldeko urak neguan; udan, eme eta nasaigo. Itsasketarako gonbita egiten dute uneoro.

Itsaso beti irekiari bizkarra emanda, ekialdeko mendi-zintzur ospelei begira bizi izan dira urte luzetan horko herritar batzuk: haizpe estu horretatik etorri baitzaie –egun argiaren ordeztu– gidari espiritualen haizea. Lagun horiek uste izan duteenez, afrontua baizik ez dator mende-baldetik; hego berotik, ekaitza. Eta, kontrolagaitza begitandu izan zaie iparreko urzelai zabala.

Begiratu bakar eta monolitikoa izan dute herri horretan askok eta askok, baina aldatzen hasita daude gauzak mendi goietan, bai eta ibar sakonetan ere: gehienek ulertu baitute, ulertu, mende-balak beharrezko euria ekar dezakeela, ekiak eguzkia, hegoak lehor-puntua, eta itsasoak ufada atsegina. Hartara, ulertu, ulertu dute ezen haitz arteak ez duela markatzen jada puntu kardinalik.

LEMARI EUTSI. Itsaslabar urdineko herri horretan, gazte eta zahar asko falta dira beren etxetik, gudu herdoil zaharretan barna galdurik. Kartzela bizi dute herritar horietako batzuek. Atzerria. Kanposantua. Ideiak ideia, txapelean erantsitako gorrotoak eta ezin ulertuak eraman dituzte batzuk eta besteak dauden tokietara.

Alabaina, aingura-kumeak ur-zozoari bezala, egun, ihesi egin nahi diote batzuek iragan antzuarri: ur arreak utzi, eta gardedanak hartu. Ezkatak ere aldatu dituzte, aldatu. Krosko berriak eraiki, oiha zulatuak josi, sareak konpondu... Baina, lege agorrari eutsi



JINIGO AZKONA



Egunotan, urteberriaren abaroan,
batelak atera dituzte uretara
itsasertz urdineko herritar batzuek.
Herriko danbolinteroari eskatu
diote *Itun berria* idaztera deitzeko
herritarrak: labarretako ertzak
leuntzeko denen artean,
gorrotoa itzaltzeko,
zintzur estuak zabaltu
eta eguzkiari bide egiteko



irudia:

Antton Olariaga

nahi diote beste batzuek, errebantxan diote: “Begia, begi truk, eta izorra hadi”.

Ahaztua dute horiek erlijiorik eta bortitzenak ere badakiela idazten *Itun berria*. Zahartutakoa gainditzeko idazten da berri hori: marmol beti hotzaren irmotasuna baztertu, eta abagune berriak esnatzen dituen ordularien orratzei erreparatzeko eta erantzuteko.

Urduri, zarata egiten dute orduan ur biziek arroketan. Baina, erloju berriak hala eskatuta, marinel zaharrak erretreta hartu eta tostarteko bizargabeari uzten dio lema.

BELAK HEDATU. Irekia bezala, errea ere bada itsasoa, batzuetan; eta antzua, zakarra, gorria, alua... Baina, itsaso da itsasoa; batez ere, zabala, neurgaitza, eta askea.

Egunotan, urteberriaren abaroan, batelak atera dituzte uretara itsasertz urdineko herritar batzuek. Herriko danbolinteroari eskatu diote *Itun berria* idaztera deitzeko herritarrak: labarretako ertzak leuntzeko denen artean, gorrotoa itzaltzeko, zintzur estuak zabaltu eta eguzkiari bide egiteko.

Aurretik, goiztiri freskoak eta eguerdi ekaiztsuak beharko dute adiskidetu. Ihintzak eta sargoriak. Adiskidetu, ez ezinbestean ohe berean etzan eta larrua larruaren kontra jarri.

Lan zaila da hori. Hanka sartu eta mina eman batek baino gehiagok egin baitu. Urrundik ireki beharko da bidea: kartzelak errautsi eta kanposantuetako liliak ureztatu. Nik zuri, eta zuk niri.

Aurrera eginez gero, kolosala izango da. Bestela, ez. Bestela, betiko moduan, itsas hondo arretan bazkatuko dira arrain-katu sarraskijaleak, lau haizeek harrotutako itsasoaren bazterrean bizi den herri ttiki-ttikiaren zoritxar eta atsekaberako. ■



Erakusketa

Komiki hiria


Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean paratu duten
Hiriko Fikzioak erakusketak komikiaren eta hiriaren arteko harremanean sakondu nahi du.

IRATXE ESNAOLA

HIRIARI BEGIRATZEKO MODUAK. Artista adina hiri modelo. Trazu beste hiri. Distopiak sortu dituzten komiki egileak, hiria esperimentu lekutzat dutenak, utopiak irudikatu dituzten arkitektoak. Horiek guztiak eta gehiago aurki daitezke *Hiriko Fikzioak* erakusketan, artista ugariren proposamenetan. Bi bilduma izan ditu Neus Miró komisario izan duen erakusketak oinarri. Batetik, Luis Gasca Gipuzkoa-ko Foru Aldundia bilduma eta bestetik Julian Armendarizen bilduma. Hiria eta komikia lotzen dituen aurreneko arrazoia historikoa

Beheko irudian
Pushwagner artista
norvegiararen *They are asleep* lana.
Hiriari buruzko
ikuspuntua
alienatzaile eta
zapaltzailea adierazi
zuen bere obren
bidez.

da. “Komikia XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera inguruan sortzen da, Europako hirien zabalkundearekin batera”, argitu digu Nerea Izagirre Hezkuntza Saileko Koordinatzaileak bisitan zehar. “Estetikoki harreman estua izan zuten biek eta horrek bere isla izan zuen komikien egituraketan hiriaren paisaiari erantzunez. Komikian irudiak, pertsonaiak, eszenak eta testuak baldin badaude, hirien egunerokotasunean, publizitatean du isla horrek, kalean ikusten ditugun testu eta irudietan”.



Hirien gainean hausnar egitera garamatzan materiala anitza da eta, anitza halaber, artistek gaia jorratzeko modua. Erakusketako aipagarriena Pushwagner (Oslo, 1940) norvegiarren lana da. 1960-70 hamarkadetan, Pop Art-aren momenturik garrantzitsuenean, hiriaz zuen ikuspegia islatu zuen artistetako bat izan zen Pushwagner. 1969-1975 bitartean argitaratu zen *Soft City* lana dago ikusgai. “Hiriari buruzko ikuspegi alienatzaile eta zapaltzailea adierazten du, errutinazkoa. Jendea bata bestearen berdina da. Denek lan bera egiten dute eta berdin jantzi. Errutina hori mantentzeko goizero pilula bat hartzen dute, *Live* izeneko” diosku Nerea Izagirrek. Trazu dardaratiz egindako marrazkiek identifikatzen dute Pushwagner. Boteredunek hiritarren gainean duten kontrola, zainketa, militarizazioa, inkomunikazioa eta elkartasun eza dira gai nagusiak. Genero rolen asignazioa nabarmena da eta literaturak irudikatutako distopia ezagunenak dakartza gogorra. Hiru formatutan aurkeztu dute *Soft City*. Horma batean lerrokatu dituzte komikiaren orri orijinalak, batetik, eleberri grafikoa liburu formatuan ekarri dute, bestetik, eta 2008. urtean egindako animazio bideoa ere bertan da. Bideotik eratorritako soinu metaliko erreplikakorrak hirien erritmo itogarri eta hertsitik ezin atera gaitezkeela sentiaraziko digu obra bisitatu bitartean.

Utopikoagoak izan ziren proiektuen artean, Archigram Londres inguruko arkitekto taldea da aipatzekoa, 1961-1970 bitartean lan egin zuena. Proiektu gutxi eraiki bazituzten ere, erakusgelan beraietako batzuen zirriborroak daude, baita argitaratzen zuten aldizkariaren ale bat ere, bosgarren zenbakia, hain zuzen, *Metropoli* izeneko. “Hiria hiritarren mesedetara egon zedin nahi zuten, hiritarren beharrei erantzuteko. Komunikazio sistemari ematen zioten garrantzia”, dio Nerea Izagirrek. Arkitektura eta hiria lotzen dituen beste autore bat Txuspo Poyo da (Altsasu, 1963), *Passenger. 50 segundos en vertical* lanarekin, Bilboko Begoña auzoko igogailua eta bere erakina 3D bideoan birmoldatuz. Beste askoren artean, Julian Armendarizen bilduman komiki egileen lan orijinalak ikus daitezke eta ondoren orijinal horien publikazioak arakatu irakurketa gelan. Batetik bestera, autoreek aurrera eramandako prozesu formala prezia daiteke: zuri-beltzetik margorako bidea, buntz builto hutsetatik testurakoa.

Erakusketarako espresuki egindako lanak

Elkartu dituzten lan ugarien artean hiru artistei beren-beregi eskatu zieten obra bana

Komikia XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran sortu zen, Europako hirien zabalkundearekin batera. Koldo Mitxelenan ikusgai dauden lanek erakusten dute diziplinak hiriari zein modu ugaritan heldu dion

burutzeko. Erakusgelako bi patio zentralen bina mural ikusten ditugu. Bata, Judas Arrietarena (Hondarribia, 1971), *Donosti-Land edo Hiri faltsutunak* izeneko. Ekialde Urrunarekin duen harremanagatik ezaguna den artistak Donostia posible bat irudikatu du, manga ukitukoa, Donostiarekin zerikusirik ez duten komikietako pertsonaiak zein komikietako hiriak erantsiz. Bestea, Javirroy diseinatzaileak (Zaragoza, 1972) osatu duen murala da, errotuladorearekin hiri asmatu bateko hainbat eszena margotuz, gaztelaniazko eta ingelesezko esaldiak makro hiri bateko egunerokotasuna islatuz, eta fikziozko King-Kongi edo estralurtarren

nabeei muzin egin gabe. Eta, azkenik, hiriarekin harremanetan jartzera gonbidatzen gaituen Francesc Ruiz-en (Bartzelona, 1971) instalazioa dugu. Eusko Trenen Gipuzkoako zenbait geltokiren izenak dituzten panelak jarri ditu erakusgelan. Eta bakoitzaren azpian komiki atal bat eta graffiti spray bat. Nerea Izagirrek esplikatu digu hamabost egunez egon zela artista Euskal Herrian eta Hendaia-Lasarte trena hartu zuela. Ibilbide horren inguruan

egindako komikiak sei atal ditu, geltoki bakoitzeko bat. Graffiti egindako erreferentzia da nagusi komikietan, neurri handi batean borroka sozialen isla ere badena (Aldi Baterako Lan Enpresen aurkako edo ANVrentzako bozka eskatzen duten pintadak ikusten dira). Erakusketa ireki berritan komikia Easo plazako topo geltokian banatzen aritu zen artista eta ez da hau komikia eta hiria uztartzen dituen lehenengo aldia. Egiptoko Kairon egin zuen beste proiektu bat ikuska daiteke gelan, *Saibesbide Berdea* izeneko. Orduko hartan komiki bat utzi zuen hiriaren puntu batean eta bertan pista batzuk hirian barrena komikiaren bigarren zatia aurkitzeko.

Erakusketaren diseinua eta muntaia Alvaro Matxinbarrrena diseinatzailearena da. Kartoiz osatutako mahaletan jarrita daude bildumako komikiak eta irakurketa gelako altzariak ere kartoizkoak dira. Bertan komiki liburuak kontsulta daitezke. Euskaraz goza daitezkeenak, hauek: *De Rerum Naturarum* hiru liburu (Zaldieroa), *Piztia Otzanak* (Harkaitz Cano eta Iñaki G. Holgado), *Pololoak* (Patxi Gallego) eta *Kristalezko Hiria* (Paul Auster). Erakusketa 2012ko Urtarrilaren 28ra bitartean dago zabalik. Aukera bikaina komiki hirien fantasian barneratzeko eta hiri modeloen gainean hausnartzeko. ■



Liburuak

KRITIKA


Igandetako kronikak

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

KOSTALDEKO HERRI TXIKI BATEAN, turismo pilaketez geroztik etorri ohi den udazkeneko lasaitasuna amaitu da Aroa Lopez desagertu denetik. Ikerketa polizialek ezin izan dute kasuaren inguruan azalpen argirik topatu, eta bizirik hala hilik ote dagoen jakin ezinak familia eta herriko biztanleak aztoratu ditu.

Denak susmagarri bihurtzen dituen ezbehar horren aurrean, herria ohiko bizimodua berreskuratzen saiatuko da. Izan ere, uneoro norbait kolpatua izaten ari den mundu honetan, aurrera egin beharra dago. Besteek jasaten dutenaren gabezia arduragabekeria izango ote? Edo, agian, “niri ez zait gertatuko” barneratuegi daukagun ustearen eragina? Dena delakoa, eleberririk honetako pertsonaiek bazekiten Sarriandariaren ipuineko igelak benetan hiltzen zirela, baina ez, aldiz, halako pasarte baten biktima bilaka zitezkeenik. Hori dela eta, Iñaki Irasizabalen eleberririk berriaren izena, *Igelak benetan hiltzen dira*.



Igelak benetan hiltzen dira.
Iñaki Irasizabal.
Elkar.
113 orrialde.
11 euro.

Istoriok asmatzeko gaitasunaz gainera, idazleak agerian utzi du beste esparru batzueganako ezagutza eta interesa baduela. Irasizabalen hitzek, gizarte baten erakusleho izan daitekeen eleberririk idatzeko asmoa zuela aditzera ematen dute: “Delituen inguruan ardazten diren istorioak, gure gizartea islatzeko tresna ezin egokiagoa dela uste dut”. Ildo horretatik, eremu soziologikoaren garrantziari eutsiz, eleberririk poliziakoen eta beltzen arteko mugak zehaztu ditu liburuan; lehenbizikoaren itxura ematen dion krimen bat abiapuntu hartuta ere, ez da ikerketa polizial baten prozesua kontatzera mugatzen, edonor errudun izan daitekeen testuinguru mesfidati bat aurkeztuz, nobela beltzera gerturatzen duen giza talde bati buruzko eta erreakzio desberdinen inguruko analisia egin nahi izan du; narratzaileak berak dioenez, garai eta leku gehatz batean gertatutakoaren “kronika subjektiboa”.

Arin irakurtzen diren 113 orrialdeetan, pertsonaia ugariren istorio indibidualak ezagutzera ematen dituzten eszena labur txandakatuak topatuko ditugu. Aurrera egin ahala, argitu gabeko gertakari latz baten ondoko zauri irekiak azaleratuz joango dira. Iragan mingarri bat atzean uztea, senide bat galdu duten pertsonaia, ez da lan erraza izan. Erantzunen bila, ingurukoaren iragan pribatua nahasteari ekiten diotenean, hastapeneko kasuari beste hainbat ekintza tragiko gaineratuko zaizkio. Horretan datza eleberririk misterioa. Bestela ere, igande arratsalde batean eta burua gehiegi nekatu gabe irakurtzekoa. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Enaren geometria.
Rafa Rueda.
Autoekoizpena.
Iraupena: 45'54".
5 euro.

Moldaketei eta konponketei hegan egiten uztea

MUNGIAKO MUSIKARIAREN bakarkako laugarren lana are eta kontzeptualagoa, sakonagoa eta irekiagoa irudituzait. Enarak eta haien zein gure joan-etorriak eta eraldaketak ditu abiapuntu. Musikari dagokionez, Rafa Ruedak oraingoan ere pop-aren inguruan hegan egiten du, baina bestelako ñabarduraek lur hartu dutela esango nuke, gitarrek protagonismoa duten pop-rocketik harago joan dela. Erritmo eta bateria gogorragoak ditu,

Arkaitz Minerren laguntzarekin Irlandako folkera hurbiltzeko gai da; baita mugaldekoak eta latinoak diren musika estiloetara eta funky-jazz beltzera ere. Punta-puntako musikariez inguratu eta konponketak egiterakoan askoz irekiago egon da mungiarra. Disko hau zuzenekoetan edo berari eskatuta soilik eskuratu daiteke; eta agertokierra talde handia eramaten du.

www.rafarueda.net

Rafa Rueda

«Badirudi helburua ez dela kultur transmisioa, estruktura ekonomikoari eustea baizik»

Distantzia. Urrundu eta gauzak handik ikustea?

Distantzia bidaiaren parte da. Mundu berriak deskubritu ahala, zure mundua urrunetik nolakoa den ikusten duzu. Batzuetan, beritasuna abiapuntua berraurkitzea da. Diskoan norberaren ezagutzarako bidaia agertzen da etengabe.

Enarak. Hobe, memoria gabe, lainoetan elipseak egiten galtzen utziko bagina?

Enarak diskoaren abiapuntua dira. Garajea habia nuen eta harritzen ninduen urtero etortzeko zuten gaitasuna. Enaren etengabeko bidaia eta gure bizitza oso parekagarriak dira. Behin eta berriz aurkitzen gara pertsona eta egoera beren aurrean baina bidaiaren esperientziak, hala-beharrez eta aldi berean, egoera eta pertsona ezberdinen aurrean jartzen gaitu, gu ezberdinak izanik ere. Enarak berak ez dira inoiz habi berberera itzuliko eta guri askotan antzeko zerbait gertatzen zaigu: atzo berdea zena, gaur urdin. Eten-

gabe ari gara aldatzen, izen berbera dugun arren.

"Dylanen kantu baten erdian inor bagina, eternal ginateke". Entzuleei zer sentiarazi nahi diezu?



Ahalik eta kanta onenak egiten saiatzen naiz. Helburua jendearengana heltzea da, emozioak transmitzea. Gustatuko litzaidake entzuleek zerbait jaso dutela sentitzea, entzun aurretik baino hobeto sentitzea. Niretzat musika hobeto bizitzeko baliabidea da, hori zabaldu nahi dut.

Berriro autoekoiztea erabaki duzu, eta bizkarra eman diezu banatzaile eta dendei. Jarraitzaileak saritu nahi dituzu?

Benetako jarraitzailea saritu nahi dut, baina baita ere uste dut gure musikaren industria ez dagoela modu jasagarrian eraikita eta horrek lanaren gutxiestea dakar. Badirudi helburua ez dela kultur transmisioa osasuntsu mantentzea, estruktura ekonomikoa eustea baizik. Ekonomia eta artearen arteko oreka behar da. Sor-tzaile eta jarraitzailearen arteko harreman ezberdin baten bila nabil. ■



Ezpalak

JON TORNER

Pedro Armendariz aktorea hil da



PEDRO ARMENDARIZ PARDO (Mexiko Hiria, 1940) abenduaren 26an hil zen, New Yorken, minbizi baten ondorioz. Haren familia jatorri euskaldunekoa zen eta

bere ibilbidean lotura estua izan zuen Euskal Herriarekin. Miarritzeko eta Donostiako zinema jaialdietako epaimahaiko kide izan zen, eta hil berria den Antxon Ezeiza zuzendariarekin elkarlanean aritu zen. Besteak beste, *Ke arteko egunak* eta *Mina, viento de libertad* pelikuletako protagonista izan zen. Aitak ere Pedro Armendariz zuen izena. Mexikoko zinemaren urrezko aroko erreferente nagusietako bat izan zen, eta semeak ere bide oparoa egin zuen. Orotara 140 filmetan parte hartu zuen Pedro Armendariz Pardok.

● Gerardo Markuleta idazle eta itzultzaileak Beterriko Liburua aldizkarian: «Euskarazko itzulpenak gozatzen ez ditugulako errudun sentitzen bagara, ez gara sekula horretara ohituko. Horrek modu naturalean atera behar du, gainontzean jai dago.

Gure garaiko gehienek gaztelania hutsean ikasi dugu, euskara gero etorri zaigu, eta euskara irakurtzeko hizkuntza modura, askoz geroago. Nik zuhaitzak edota zenbakiak, esaterako, nahiago ditut gaztelaniaz, eta garai batean errudun sentitzen nintzen horregatik. Baina, gero pentsatzen hasten zara eta, horregatik ere errudun sentitu behar ote dut? Ez, nahikoa da. Noski, euskararentzat, euskal literaturarentzat eta euskal itzulpen-gintzarentzat askoz hobea litzateke jende gehiagok hautu hori egingo balu, baina hautu horrek pertsonala izan behar du, ez du ezertarako balio idazle handiek itzulpenak irakurtzea oso ona dela esateak. Emaidazu gozatzeko moduko itzulpen bat, gaitasun handirik ez daukadan arren. Itzultzailearen lana hori da».



MADDI TRUTXUELO

EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

Abarrak

UNAI BREA

Jainkoaz agian gehiegi mintzatzen den fisika liburua

The grand design. Stephen Hawking & Leonard Mlodinow. Bantam Books, 2010.

STEPHEN HAWKING gure garaiko fisikari teorikorik onenetakoa da, eta zalantzarik gabe, gure garaiko fisikari teoriko ezagun bakarra da. Sarkozy, Ratzinger eta, kasu baterako, Einstein ezagunak diren maila berean, esan nahi dut. Ez dakit noraino eragin duen horrek *The grand design*en (Disainu handia) azalean Hawkingen izena Leonard Mlodinowena baino askoz hizki handiagoz agertzeko. Argitu dezagun halere Mlodinowek zientziaren arloan daukan curriculumak ez diola inondik inora itzalik egiten Hawkingenari; fisikan doktorea da Mlodinow, baina ezagunagoa da gidoilari aritu izanagatik *Star Wars*, *Star Trek* eta *McGyver*-en, besteak beste. Hawkingekin batera sinatutako bigarren lana du hau.


The grand design zientzia-dibulgazio lan bat irakur daitekeen bezain erraz eta arin irakurtzen da. Ezaguerri hori Mlodinowen lumari egozten diote adituek. Nahikoa modu ulerkorrean, eta umore printzez josita, *The grand design*en orrialdeek mekanika kuantikoaz, oraindik garatzeke dagoen M teoriak eta haren hamaiak dimentsioez, printzipio antropikoaz, unibertsoaren sorreraz eta multibertsoaz ilustratuko zaituzte. Gai latzak publiko zabalarentzat, baina beti bezala Hawking saiatu da matematikaz zipitzik ez dakigunontzako moduko azalpenak ematen. Esaldi batzuk behin baino gehiagotan irakurtzekoak dira, baina gauza bera gertatzen da mota honetako liburu guztietan. Albert Einsteinek esana omen da gauzak

ahalik eta modurik sinpleenean azaldu behar direla, baina ez sinpleago. Eta hala ere, nahikoa sinplifikatu dute egileek. Agian larregi, kosmologiaren gaineko dibulgazio-lanak irakurtzera ohituta bazaude.

Liburua indarrez hasten da: lehenengo orrialdea amaitu gabe filosofia hil dela deklaritzen du. Eta sei orrialde besterik ez dituen lehen pasartean bertan, Galdera Handiak jartzen ditu mahai gainean: zergatik dago “zerbait”, “ezer ez”-en orde? Zergatik existitzen gara? Esan gabe doa horien erantzuna ez dagoela liburuan, batzuetan hala iradoki arren. Gehiago dirudi, gaiak egiten den aipamen kopuru nire aburuz handiegia ikusita, egileek kosta ahala kosta nahi izan dutela frogatu unibertsoak ez duela Sortzaile baten beharrik izan –Jainkoa, esango genioke latitude honetan–; zientziak aspaldi frogatu ez balu bezala! Dagoeneko horretaz konbentzituta ez dagoenik konbentzitzen hasteko beranduegi da, baina kasta horretakoak oraindik asko eta boteretsuak direnez, polemika ederra piztu zen liburuaren inguruan, hura argitaratu

aurretik ere. Hawkingek Jainkoaren existentzia ukatu du!, zioten duela urtebe inguruko titular asaldatu itxurakoek.

Gehitu horri egilearen ospea eta liburuaren ustezko helburua izatea inguratzeko gaituen eta errealitate izena ematen diogun hau zer ote litekeen eta nondik demontre letorkeen esplikatzeko ahalegin-tzea, eta hahor milaka erosleren jakin-gosea behar bezala kitzikatu-ta. Bide batez, liburuak dio unibertsoa berez eta ezerezetik eratu zela, grabitatearen eraginez. Baina ez zergatik. ■








Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

UGAZTUN LIRAINA ALE, BIHI		ZATIKETA- REN EMATZA ...DE JANEI- RO, BRASIL		USO AR		HARIAZ LOTU ... JO, NAZKATU		NOLATAN PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA		NEKATU ZIKOINA	
ZATI OSO TXIKI PERTSONAIA- REN IZENA						POEMA HEBREARRA BIZKI					
IODOA MAKILA		HERENSUGE ISRAELGO LEINU BATEN KIDE						NORENTZAT ATZIZKIA ARKUA			
PERTO- NAIAREN ABIZENA	MODUAK ZUBEROAKO HERRIXKA										
51 GURTZA JASOTZEN DUEN IZAKI		JAUSIA EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ									
ZAHATO ZERTARAKO											

Greztian

Lagun batek kontatu zidan, bere adiskide batzuk Atenasera joan, pentsio batean logela hartu eta kalera irtetera zihoazenean, jabeak honelaxe esan ziela:

– Eta hirian zabiltzatela zer-baiten beharra baldin baduzue, lasai deitu, eta azalduko dizuet nola konpondu zaitezketen... gabe!



Soluzioa

E	N	G	O	A	N	M	O	A	I	A	T	M	K	O	K	O
J	G	S	A	L	M	O	B	I	S	A	I	A	T	M	K	O
G	O	S	A	L	M	O	B	I	S	A	I	A	T	M	K	O
							E	G	O	A	N	M	K	O	K	O
Z	A	R	A	U	S		E	G	O	A	N	M	K	O	K	O
Z	A	R	A	U	S		E	G	O	A	N	M	K	O	K	O
G	A	R	A	U	S		E	G	O	A	N	M	K	O	K	O
I	D	O	I	A			E	G	O	A	N	M	K	O	K	O
P	A	L	U				E	G	O	A	N	M	K	O	K	O
Z	A	B	A	L	E	R	A	K	O	K	O	K	O	K	O	K
Z	A	B	A	L	E	R	A	K	O	K	O	K	O	K	O	K
T	O	T	E	M	K	A	R	I	A	Z	A	I	L	E	A	A
Z	A	H	A	G	I	M	A	S	A	I	L	E	A	A	A	A
Z	E	R	E	N	D	A	K	O	K	O	K	O	K	O	K	O

GARTXOT



15€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT

12€



Ihesi

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Núria Juan Serrahima

Bartzelona

Begi zolak erretzeko

Bazterrak harrotzeko manierak dira mordoa, ibiltzeko bideak diren bezala bailara. Ze bide ibili, bazterra nola harrotu, hahor akaso kontua. Bartzelona esan zidaten niri, eta marjina gutxi hartara. Hiri zorua nola kurritu, baina, libre antzean utzi zidaten. Egin ezak hire Bartzelona.

BAITA ZERA ERE. Ez dut besterik behar, haragi irekia hemen erakusten hastea. Gauza bat baita bisita eta beste bat bizitza, konpai. Ez da gauza bera hiri bat bisitatzea, eta hiri hori bizitzea. Ez dut Bartzelona euskotarrez hustu nahi, gainetik, ez euskotarrak Bartzelona paparrean paratzearen harrotasunaz. Horrengatik aukeratu ditut liburuak, besteek Bartzelonan barrena aukeratu-tako bideak. Eta Bartzelona literarioa den ez dakit. Tira, bai, edozer literarioa den neurrian, bada. Baina seguru dakit liburu makina batean agertzen dena, garai-leku diferenteetako liburu saldoan. Bidea hasiko dugu geure autore batekin, autore unibertsal batekin: Koldo Izagirrerekin.

Nik ere Germinal! egin gura nuen aldarri eleberriak zapaltzen du behin baino gehiagotan Bartzelona, tarte-partea ezberdinetan zapaldu ere. Bidea has genezake Modelo izeneko kartzelan –zeren eredu genukeen badaezpada hobe ez galdetzea–. Euskotarrok, trenetz, autobusez, lur hartzen dugun Sants estaziotik oso gertu, Modelo presondegia. Bertan, vis a viseko gela da orain Salvador Puig Antich, Espainiak garrotatu zuen azken

iraultzailea, anarkista bat, akabatu zuen aretoa. Eta preso batzuek, non dauden jakinik ere, lortzen dute biluziko bisitan berotzea.

Libertate urreko gunea bisitatu ostean, airearen zabala eskertuko du bidaiariak. Suntsitu ezin izan zuten gaztelu madarikatuaren orpogan, Moll de la Fustan, narratzaileak euskal presoan aldeko batzordeko-engana joan aurretik, beti bisitatzeko ditut Salvat Papasseiten eskulturaren inguru zabalak. Ikusmira gazia, auskalo zertan den balizko batzorde aipatua. Oraino haize alde bazterrotan, haize berriak halere.

Bidea has genezake Modelo izeneko kartzelan, euskotarrok, trenetz, autobusez, lur hartzen dugun Sants estaziotik oso gertu

Itsasoa bizkar utzita, Rambletatik gora hartzea onena. Sartrek *Goragalea*-n hamaika aldiz igo eta jaistea hain atsegin zituen Ramblak. Baina ez gaitezen *Germinal*-etik atera. Rambletan bertan daukazue,


ikusgarria da. Eliza baten ondoan dago Filipinetako Tabakoen Konpainia Nagusia, elizaren luzapen. Zer edo zer jakingo du Jaime Gil de Biedmak, hainbat urte lanean bertan. Konpainian lanean eta apur bat aurrera, Robador karrikan, gauaren konpainian. Hain xuxen, Robador karrikaren erdian birao egin zuen Bartzelonan Giuseppe Santo tipografoa zenak. Emagalduta, gameluren batek entzungo zion bart egin izan balu.

Jean Genet

Raval inguruotatik gehiegi urrundu gabe, aurkituko dugu Jean Genet, eta bere *Journal du voleur*. Noski, Geneten garaietan Raval ez zen Raval, Barriotxinoa zen. 1932an gaude. Eskaleek estaltzen dute dena zorriak bailiran. Genetek dio. Eta zorri izan zen bera, beraz, zorri izateaz kontziente. Eta Migdia gaur ez da existitzen, baina Carme kalea bai, horiek bizi zituen batez ere. Batzuetan, seik egiten zuten lo izararik gabeko ohean, eta egun argitzetik joaten ziren merkaturatara, amoina eskatzera. Taldean atera Barriotxinotik, Paral.lel etorbidean banantzen ziren, kapazu bat besazpian, etxeko andreek errazago

Eskuineko argazkian, Robador kalea, Raval auzoan.





Koldo Izagirreren *Nik ere Germinal!* egin gura nuen aldarri eleberrian aipatutako Bartzelonako lau txoko dituzue argazkiotan. Goian, Modelo espetxea eta Joan Salvat Papasseit idazlearen eskultura, Moll de la Fusta kaian. Behean, Filipinetako Tabako Konpainia Nagusiaren eraikina eta, eskuinean, Raval auzoko Robador kalea, aurreko orrialdeko argazkian ageri den bera.

ematen zutelako porru bat edo arbia, txanpona baino. Hamabietan bueltatzen ziren, zegoenarekin prestatzera jatena.

Ez ziren zorriak soilik. Baita Las Carolinas deituriko emazteak ere. Ez dakit zehatz zer ziren, baina hau bai: xalak, mantelinak, zetazko jantziak, jaka estuak. Egun batean egin zuten segizioa, portu ingurura, hamaika soldaduren gernuak karraskatutako pixatoki batera. Paralel abiapuntu, Sant Pau bihurrikatu, Rambletatik behera hartu zuten Colonen estatuaraino bidea. Haien ahots zaurituak, minezko oihiak, keinu gehiegizkoak. Haien artean nahi zuen Genetek. Lotsaren alabak omen. Portura iritsita, kuarterantz hartu, eta pixatokiaren txapa herdoil eta kirastuaren gainean utzi zuten lore sorta.

Eta gero La Criolla. Cid kalean omen zegoen kabareta. Genet prostituitzen omen zen kabareta.

Ravalen osterara gara. Stilitano besamotzaz zegoen esekita, baina, ai, gizon-gizona izan maingua. Sarri joaten ziren elkarrekin La Criolla-ra. Ordura arte sekula ez zitzairen bururatu. Baina pixatokiko gizon batzuekin lortu zituen sosak eman zizkionean, Stilitanok erabaki zuen lagunak La Criollan lan egitea. Gustatuko litzaizuke emakumez janztea?, esan zion Genetek belarria.

George Orwell

Giro itoa gurea, Rambletara aterako gara haize pixka bat hartzera atzera. George Orwellen eskutik aterako,

Reial Acadèmia de las Ciències de Barcelona, eraikin horren teilatuan eman zituen George Orwellek hiru egun hiru gau, bizitzako lazgarrienak

Bartzelonako beste lekuen gainetik agertzen baitira Ramblak *Homage to Catalonia* liburuan. Izan gertaera epikoen eszenatoki, izan giza aldren topaleku. Edo izan gobernu errepublikanoaren eta milizia anarkisten arteko diferentzien elkargune. Cafè Moka ondoan zegoen POUMeko egoitza. Poliorama Teatroa, Reial Acadèmia de les Ciències de Barcelona, eraikin horren teilatuan eman zituen Orwellek hiru egun hiru gau, bizitzako lazgarrienak. Bertatik ikusi zuen, Bartzelonan lehen aldiko, iritsi zenetik itsasoa.

Hasieran zail zitzaion zer ari zen gertatzen jakitea, nor ari zen noren kontra. Jendea ohiturik zen kale borroketara, tokiko geografiara, zer nork kontrolatzen zuen asmatzera: Rambletako eskuin auzoak, langile, argiro ziren anarkistak. Ezkerrekoetan, aldiz, guardia zibilak agintzen zuen eta PSUC komunistak. Orwellen alde,



Ramblak kalearen hasiera.

ordea, Catalunya plaza ingurua, erabat zen nahasia. Colon hotelean, esate batera, PSUCen etxe nagusian, plaza garbi zezakeen metrailadore bat zeukaten errotulu erraldoiaren bigarren “O” horretan.

Colon hotela, egun Banesto dena, garaian idazle, artista, batez ere arkitektoen bilgune zena. Bartzelona berriaren igurikapen, proiektzioen sorlekua. Baita Dolores Ibarruriren ¡No pasarán! oihu famako harena ere. Plaza osoa zen gerrarako. Adibidez Telefónica, Fontanella eta Portal de l'Àngel izkinen artekoa. CNTk hartua, bertan hasi ziren 37ko maiatzeko gertaera odoltsuak, Pere Calders handiak *Gaeli i l'home Déu* lanean birsortuak. Orwellek hasten du 9. kapituluak: “Lagun batekin gurutzatu eta esan dit, eman gabe garrantzi handia: zarata apur bat omen dago Telefónican”.

Mercè Rodoreda

36koa bukatu zen noizbait, eta guk ere hasi beharko dugu bukatzen.

Lasaia, 35 bake urte etorri baitziren jarraian. Bartzelonakoak harripatu zituen Mercè Rodoredak, kurioski, hirian gora eginez. Itsasertzetik abiatu gara, egin dugu Rambla-Ravaletan goitikoa, Catalunya plazatik barrena, akitzeko orain Gràcia auzoan. Zergatik ez, edari freskagarri baten konpainia noblean, auzoa inurritegi bilakatu

Bartzelonak ere nahi du bere nobela, hiri osoa biltzen duen paperezko fikzioa. Esan izan dute Mercè Rodoredaren *La plaça del Diamant* litzatekeela, apika, nobela hori

duten terrazetako aulkiren batean, eguzkiaren epela azalean. Rodoredaren nobelak hartuz gero, Diamant plazan bukatzen hastea izango dugu onena.

Bartzelonak ere nahi du bere nobela, hiri osoa biltzen duen paperezko fikzioa. Higiene litera-

ria muturrera eramanez, Sergi Pàmiesek egin zuen saioa, *La gran novel·la sobre Barcelona* izeneko ipuin bildumarekin. Serioago diren batzuek, baina, esan izan dute Rodoredarena litzatekeela apika. Bada behintzat idazlearen lanik zabaldu eta aitortuena. Eta Gràcia du kokaleku. Diamant plaza, jai giroa, dantzaldi bat, halaxe ekiten dio lehen kapituluak.

Baina ez da autoreak auzo horretan jartzen duen eleberri bakarra. *El carrer de les camèlies* du idazpuru Rodoredaren beste lan ezagun batek, Gràciako kale apainaren izena atxikitak. *Mirall trencat* eta *Aloma-k*, ezagunen artean beste bik ere, gaur zapaltzen ari garen hiria hartzen dute geografia. Eta azkenerako, ez zait argi geratu literarioa ote den Bartzelona. Baina hemen aipatutakoak gehi beste asko eta gehiagotan agertzen dena, zalan-tzarik ez da. Begi zolak erretzeko moduko hiria, Bartzelona. ■




Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Phobos Grunt zunda Lurrera erortzekotan da

AZAROAREN 9AN Errusiak Phobos Grunt zunda espazioratu zuen, Marteko ilargi nagusia, Phobos, aztertzeko asmotan. Matxura baten ondorioz zundak ezin izan zuen Lurraren eremu magnetikoa gaingitu eta une honetan 200 eta 275 kilometro bitarteko altueran biraka ari da. Urtarrilaren 6aren eta 19aren artean lurreratuko dira haren hondakinak, Lurreko

atmosfera zeharkatzean ia osorik erreko baita, kobalto-57 isotopo erradiaktiboaren hamar mikrogramo barne. Guztira 200 kilogramo hondakin lurreratuko dira, 20 edo 30 pusketan; zientzialarien arabera, hondakin horiek itsasoan eroriko dira, urak estaltzen baitu Lurraren gainazalaren %70, "zorionez". Egia esan, ez dugu ongi ulertzen azken hitz horren esanahia.




WWW.ZALESKI-EJ.GIERD.COM



Nano-imanak sortzen dituzten bakterioak

BAKTERIOEN PROPIETATE BATZUK, ezagunak izanagatik, harrigarriak ere badira. Ezaguna zen bakterio batzuek propietate magnetikoak dituztela, hau da, kristal magnetikoak eraikitze ahalmena dutela. Berriki, eta lehenbiziko aldiz, nazioarteko ikerlari talde batek lortu du greigita (Fe_3S_4) eta magnetitarren (Fe_3O_4) nano-imanak sortzen dituen bakterio talde bat laborategian haztea, Kaliforniako Heriotzaren Haranean bildutako laginei esker.

Ikerketa honek medikuntzako tresnerian izango ditu aplikaziorik garrantzitsuenak.



WWW.REALCAOS.COM



Grabitate ezaren eragina osasunean

Sei hilabete edo gehiago irauten duten hegaldi espazialek kalte egin diezaiokete astronauten osasunari. Esaterako, Nazioarteko Estaziora joan-etorrian ibilitako astronauta gehienei lausotu egin zitzaizen ikusmena, Texasen egindako ikerketa baten arabera.

<http://ttiki.com/33583> (Gaztelaniaz)

Aurpegian anomaliak dituztenak baztertzea errazagoa da

Gauza jakina da aurpegi itsusia dutenek, edo aurpegian, edozein arrazoi dela medio, orbanak dituztenek zailtasun handiagoak dituztela lana topatzeko. AEBko hainbat unibertsitateko ikerlari talde bat egoera hori arrazoitzen saiatu da eta ondorio interesgarrietara ailegatu da.

<http://ttiki.com/33584> (Gaztelaniaz)

Malaria gizakiaren aurretik

Oregoneko Unibertsitateko (AEB) George Poinar Jr. zoologoak frogatutzat eman du utero milioi bat heriotza eragiten duen malaria eta beste gaitasun batzuk bazirela Lurrean gizakiaren aurretik, eta beraz, guk baino urte gehiago daramatzatela egoera desberdinetara moldatzen.

<http://ttiki.com/33585> (Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ausart!



WWW.EVENTSLISTED.COM

BASOBERRITZEARI ekin behar diogu. Baso ugari duten herri aurreratuek (Austria, Finlandia...) aspaldi heldu zioten baliabide baliotsu hori zorrotz arautzeari. Gu ere halaxe gara: baso ugari duen herri aurreratu. Eta araudia? Araudian hor konpon, Marianton!

Azken ia bi mendeetan halamoduzko kalitateko egur jakin batzuk ekoiztera jarri ditugu gure basoak, batik bat paper fabriketarako eta merke zuhurreko altzarigintzarako gaiak. Politika horren hondamenaren ondorioz, aurrerantzean beste xede batzuetara bideratu beharko da gure basoa. Bestela jai dugu, basoak eta guk.

Kalitatezko zura eta energia, horiek izango dira etorkizuneko basoaren etekin nagusiak. Eta honetarako bi baso mota abian jarri beharrean gara: baso-

gure honera, gure buruaren oihanera, gure basoaren garunera ekarri beharrean gara: lizarra, astigarrrak, haltza, urkia, ametza, ezkia...

Aziendarentzat larre eta bazka-lekuak, perretxiko-zaletasuna, sendabelarrak, fruitu basak eta tokian-tokian axola duten beste etekin kulturalak ezingo dira baztertu, ezta ere.

Milaka urtetan ondu eta borobildutako baso-jakin-tza errekarera eraman eta jota hondatua dugu. Iraunkortasuna bioaniztasuna eta lurrari lotutako lanpostuak izatea bada, ekin basoari! Eskumena duenak arau beza, ausart! Basogintza berri bat abiatu eta lehenengoan asma-tzea ez da erraza izango. Ahal den azkarren ekitea onena.



musika bulego osoa

baga-biga

musikarientzat baliabideak eskura

esne beltza, kaotiko, etxe, xutik, gaizka penafiel, vendetta, antton, oinkari, disturbio

Historia del Rock Vasco

baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Bere burua etxekotu zuen etxeko animalia

CHLOE KING



AP / P. GRARD



Ezkerrean, Bastet jainko egiptoarraren estatua, katu etxekotuen edo katu burudun emakumeen bidez irudikatu ohi zutena. Eskuinean, Zipren aurkitutako giza eta katu arrastoak (goian gizakia; azpian katua). Luzaroan uste izan dugu katua egiptoarrek duela 4.000 urte etxekotu zutela, baina Zipreko aurkikuntzak erakusten du katuak gizakiaren alboan zeudela duela 10.000 bat urte.

ZIPRE, DUELA 9.500 URTE. Egun Shillourokambos deritzon aztarnategi neolitikoan pertsona bat ehortzi zuten, alboan katua zuela. 2004an Jean-Denis Vigne paleontologo frantziarra buru zuen arkeologo talde batek aurkitu zituen gizakiaren eta katuaren arrastoak. Katu horrek basakatu afrikarraren antz handiagoa zuen egungo katu domestikoarena baino. Hala ere, adituek ez zuten zalantzarik izan: katu hori gizaki batekin batera ehortzi bazuten, etxekotua zegoelako izan zen. Eta, horrenbestez, ordura arte nagusitu zen teoria, katua egiptoarrek duela 4.000 urte inguru etxekotu zutela zioena, bertan behera geratu zen. Zipren aurkitutako katua askoz lehenago etxekotu zuten Neolitoko abeltzain nekazariak, K.a. zortzigarren edo bederatzigarren milurtekoan, ia nahi gabe, gizakiek nahi gabe behintzat.

Nekazaritzaren hastapenetan gizakiak landareen soberakinak biltzen eta gordetzen hasi ziren, eta berehala zekale erreserbek ugaztun karraskariak erakarri zituzten. Jean-Denis Vigne katua aurkitu zuen paleontologoaren hitzetan, “zientifikook sagu

horiek komensal gisa definitzen ditugu, baina gainerakoentzat parasitoak besterik ez lirateke, gure janaria jatera zetozelako. Karraskariak ez zuten ordura ere halako pagotxarik izan, eta pentsatzekoa da lehen gizaki sedentarioek sagu izurrite kezka-garriari aurre egin behar izan ziotela”. Jakina, sagu kontzentrazio hori ere pagotxa bihurtu zen katuentzat, azerientzat eta bestelako haragijale txiki-entzat, eta giza kokalekuetara hurbiltzen hasi ziren. “Une horretan gizakiak konturatu ziren egoera horri onura ateratzeko”. Hala ere, gizakiak ez zuten katua erabat etxekotu, ez baitzuen lortu felido txikiak gizakiekin eta gizakientzat ehizatzea. Katuak gizakiez baliatu ziren bizimodu errazagoa lortzeko, eta gizakiek katuen “erabakia” onartu zuten beraientzat ere harremana onuragarria zelako.

Neolitoan gizakiek beste hainbat espezie etxekotuko zituzten beren nahiera. Baina 10.000 urte geroago, oraindik ez dago garbi gizakiak katua domestikatu ote zuten, ala katuak gizakia.



Arrastoak

Hitler hiltzen ahalegindu zen arotzari monumentua

GEORG ELSER arotz komunista Adolf Hitler hiltzen saiatu zen 1939ko azaroaren 8an. Municheko garagardotegi batean lehergailua jarri zuen, Hirugarren Reicheko hainbat buruzagi bertan bildu zirela jakinda. Baina Hitlerrek aurreikusitako baino lehen utzi zuen bilera. Bonbak eztanda egin zuen, zortzi hildako eragin zituen, baina Hitler onik atera zen. Elser atxilotu eta Dachau kontzentrazio esparruan sartu zuten. 1945eko apirilean exekutatu zuten, Hitlerrek bere buruaz beste egin baino egun batzuk lehenago.

Berriki hamazazpi metroko eskultura inauguratu dute Berlingen Elserren omenez.



LIENHARD SCHULZ

Altzairuzko eskulturak Georg Elserren aurpegiaren silueta du oinarri.

Euskal preso eta iheslari politikoak

Jendetza espero dute Bilbon, urtarrilaren 7an

“Euskal Herria: aterabide demokratikoa orain” izan zen abenduaren 10ean Baionako karriketan ibili zen jendearen lema. Preso eta iheslariak manifestarien sostengua ukan zuten. Urtarrilaren 7an, berriz, Bilboko kaleetan iragarritako manifestazioa kolosala izango ei da.

MIKEL ASURMENDI

GARAI POLITIKO BERRIAN GAUDE. Preso eta iheslari politikoaren aldeko sostenguak lehentasuna hartu du normalizazio politikoaren bidean. Aro honen lekuko ditugu iragan abenduan plazaratu eta kaleratutako ekimen ugari –Ipar nahiz Hego Euskal Herrian–. Baionako karriketan 4.000 lagunek Euskal Herriak irtenbide demokratikoa behar duela aldarrikatu zuten. Manifestazioan, presoek eta iheslariak eskubideak bermatzea berebizikoa dela adierazi zuten ozenki.

Oro har, abenduan, hainbat herritan manifestazioak izateaz bestera, preso eta iheslariaren aldeko itxialdiak eta baraualdiak izan dira tokian tokian. Barañainen, adibidez, jendeak bertako Julian Retegi frontoia bete zuen presoek sakabanaketaren amaiera eskatuz. Halaber, preso izandako 400 lagunek agerraldia egin zuten Azpeitiko Izarraitz frontoian, “Euskal Preso eta Iheslariak Etxera” aldarrikatuz. Herritar hauen guztien iritziz, Espainiako eta Frantziako gobernuak presoek dispersioarekin amaitzea lehen –eta funtsezko– urratsa litzateke normalizazio politikoaren prozesua egonkortzeko.

Alta bada, horiek horrela, prozesuarekiko jarrera ez da aldatu Espainiako zein Frantziako estatuen aldetik. Esate baterako, Baionako manifestazioaren biharamunean, polizia frantsesak Josu Esparza iheslaria Espainiaratu zuen “euroagindua” aplikatuz. Halaber, poliziak

berak Intza Oxandabaratz eta Julen Mujika herritarrak espetxeratu zituen. Adibideak besterik ez dira.

Gernikako adierazpena sinatu duten alderdiek, hala nola Aieteko Adierazpenarekin bat egin duten alderdi, sindikatu eta gizarte eragileek bat egin dute presoek aldeko eskubideak betetzeko nahia eta behararekin. Areago, esate baterako, Patxi Lopez lehendakariak eta Nafarroako alderdi sozialistak presoekin malguago izatea eskatu diote PPko Mariano Rajoy buru duen Espainiako Gobernu berriari.

Bien bitartean, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (EPPK) aipatutako alderdi, talde eta eragile politikoek hartutako konpromisoiari batu zaio. Preso bakoitzak Euskal Herrian elkartzeko eskaera egingo zuela esan du Kolektiboak. Presoek

prozesuan egin beharreko ekarpena egin ahal izateko Euskal Herrian batuta egotea nahi dute, prozesua bideratzeko landu beharreko ildo politikoa zehazteko.

Eragileak eragile, taldeak talde, “Egin dezagun bidea” taldeak aurrea hartu du. Hil honen 7an manifestazio eskerga itxaron da Bilboko kaleetan. Espetxe politika aldatzeko lehen urratsa bezala jotzen dute deitzaileek. Manifestazioa kolosala izango ei da. Hala dio lema. 10.000 atxikimendu baino gehiago jaso du deialdiak dagoeneko. Jende osteek Bilboko karrikak beteko dituzte modu kolosalean.

Anartean, guhaurek, preso izatearen esperientzia eta presoek mundua ezagutzen duen abokatu baten lekukotasunak bildu ditugu hurrengo lau orrietan. ■



JON URBE / ARGAZKI PRESS

400 preso ohi preso eta iheslariaren alde agertu ziren Azpeitian.

Estanis Lopez Agiriano, preso politiko ohia

“Etorkizuna ez da samurra, baina bai itxaropentsua”

“**CARABANCHEL, ALCALA ETA HERRERAN** bi urte eman nituen. 1987ko sakabanaketaren ondoren Castellonera eramán ninduten, iazko maiatzera arte. 12 bat preso geunden, beti bereiziak, 2-3 lagun modulu bakoitzean. Sentimendu onak eta oso garrantzak gorde ditut: kidetasuna eta elkartasuna jaso ditut, baina errepresio handia eta une txarrak ere bai —Aljeriako, Lizarra-Garaziko eta Loiolako su-etenen ondoren bereziki—. Eguneko 20 ordu ziegán bakarrik egoten ginen —eta gaur hala dira ere—. Moduluetatik patiora jaisten ginen goizean, kirol pixka bat egin, lagunén arteko solasa izan, eta —otorduak tarteko— ziegara berriz ere: irakurri eta nork bere ametsak bizi zituen. 1996an, oraingo neskalaguna ezagutu nuen. Basauriko Santi Diaz Uriarte presoaren tutoretza lana egiten zuen orduan. Pedagogia ikasi zuen Santik. Zoriturrez, kartzelatik atera eta minbiziak eramán zuen. Bikotekide izateak laguntza handia ekarri dit. Halaber, atera ondoren harrera hunkigarria izan nuen. Ezin esanezkoa da horrek sortzen dizkizun poztasuna eta urduritasuna. Jende asko bildu zen karrikan, jende anitza, politikoki denak ez datoz guztiz bat zurekin, baina horiek ere harrera egin dizutela sentitzea handia da.

KALEAN ZAUDE, BAINA EZ DA SAMURRA, dena da berria, ez duzu zure burua aurkitzen. Lehen hilabeteetan burua espetxean duzu. Kartzelan “dena” egin duzu: ordu berean lo, ordu berean jan... Kanpoan kaosa da: gaur ordu batean bazkaldu edo afaltzen duzu, bihar beste batean, dena presaka egiten da, denak presaka doaz. Arrotza sentitzen zara. Teknologiaren eragina izugarria

da: mugikorrak, Internet... Gauza askok harritu naute. Treneko biletea hartu nuen lehen aldian ez nuen asma-tu. Oartzun bera ere lehen biziagoa zen, orain hotzago da. Duela 25 urtekoarekin alderatuz, jendeak beste lehentasunak ditu. Gizartea aldatu da, bai onerako bai txarrerako. Egunerokotasuna asko jaitsi da, tristeago da bizimodua. Kaosa nagusitu da, kotxeen eta bideeta-ko abiadura. 25 urteren ondoren Eguberriak etxean pasa ditut, eta bereziki, gurasoe-kin egotea polita da. Baina burua barruan daukazu.

ESPETXERATU NINDUTENEAN, 19 URTE NITUELA, igeltsero-tzan ari nintzen. Lanbide heziketa ikasi nuen. Orduan krisi garaia zen, eta hala da orain ere. Aurreko garai “oparo” hori izugarria izan dela sentitu dugu barrutik: kotxe eta etxea handiak... Jendeak bat baino gehiago du gainera. Handikien modura ibili da jendea. Oraingo egoera ez da goxoa, baina aberatsak ez garela jabetze-ko egokia da nik uste. 44 urte ditut. Preso ohi batentzat lan mundua are zailagoa da, lanik ez dago eta gazteak oso prestatuta daude. Prekaritate izugarria dago. Lagunak ondoan ditugu eta eskerrak. Kartzelatik atera gare-nok talde bat osatu dugu preso ohiei lagundu aldera. Ikasketak bideratzeko, lana bilatzeko... Elkartasuna badago, baina denok ez dugu elkartasun berbera. Nik anaia-arreben eta neskalagunaren aldetik laguntza han-dia jaso dut, Oartzungo lagunena ere bai. Hil honen 2an basogintzan hasiko naiz lanean.

PROZESU EZBERDINAK BIZI IZAN DITUGU, eta bakoitzak bere berezitasunak izan ditu. Zentzu horretan, hona ekarri gai-tuen bidea ongi urratu dela uste dut. Egia da, bidean bide, ezker abertzalea mugatua geratu dela, baina gaur egun bidea zabaltzen ari da, eta beharrezkoa da. Hartara jende gehiago etorri da oraingo prozesura. Etorkizuna ez da samurra, baina bai itxaropentsua. Ikuspegi ezberdinak izango dira aurrera egiteko, baina gauzak garbi daude, hartutako bidean ez dago atzera egiterik, aurrera goaz.

OSO ILUSIONATUA NAGO BIZI DUGUN UNE POLITIKOAREKIN. Indarra badago. Jendearen aldetik ere behar bat dago prozesu hau aurrera eramateko. EPPK-k agiri bat aur-keztu du berriki, aipatutako bideari heltzeko prest dago-ela dio Kolektiboak. Gaur egun espetxe egoera ez da aldatu halere, aurreko prozesuetan bezalatsu daude presoak. Kartzeletako egoerak ez dira aldatu, nik daki-danez. Baina ilusioa izugarria da, epe erdi batean gau-zak aldatu daitezkeelako. Kanpoan eta herrietan ere berdin. Bilboko manifestaziorako kartelak dioen bezala: *Kolosala izango da*. Jende anitz izango da, azken urtee-tan mugitu den jende multzoa baino handiagoa. Zentzu horretan Bilbora joateko animatzen dut jendea. Presoak eta iheslariak gogoan izateko, Euskal Herrian eta etxean behar ditugulako”.



“Oartzungo Estanis Lopezek 25 urte eman ditu espetxean: 1986tik 2011ko maiatzera arte”.

Jon Enparantza

«Amnistiaz hitz egin behar da, kontzeptuan sakondu aldera»

Donostia, 1968. Antigua auzokoa da. Euskal preso politikoen abokatu ezaguna. Iragan urteetan bederatzi hilabete eman ditu preso, ETAko kide izatearen akusaziopean. Beraren aurkako karguek indarrean jarraitzen dutela adierazi digu. Hernaniko bulegoan hartu gaitu.

JON ENPARANTZA ABOKATUAREKIN izandako solasaldiaren azken hitzak dira honako hauek, etorkizun politiko hurbilaz galdetutakoan: “Ez dakit. Ikusteko dago gobernu berriaren jarrera. Mariano Rajoy zuhur ari da. Itxuraz, modu sakonagoan hartu nahi du euskal afera. Gobernu berriak kristoren ‘pastela’ dauka: krisi ekonomikoa, estatua egokitu beharra... Ziur aski, diseinu politiko osoa prestatzen ari dira. Zein erabaki hartuko duten? Euskal gatazkari dagokionez, aurreko gobernuak baino baldintza hobeak ditu honek. Gobernu ohiaren praktika mugatua izan da oso: agian ezin izan du, baina nahia ere ez du agertu. Ausardiarik ez du izan PSOEk”.

Nolakoa da uneon, Espainiako Bote-re Judizialaren jarduerak?

Azkeneko urte honetan gertaera politikoak abiadura handiz eman dira, baina gure eremuan —eremu edo botere judizialean— aldaketa positiborik ez da izan. Egoerak berdin jarraitzen du. Espainiako Bote-re Judizialaren abiapuntuan bere independentzia eskasa dago. Normalean, botere politikoak, botere exekutiboak, justizian presionatzen du. Espainia horren adibide garbiena da. Horrek ez du esan nahi beste estatuetan ematen ez denik, presio politikoa beti dago administrazio judizialaren aurrean. Espainian baina, euskal afera dela medio, arazoa areagotu egiten da. Espainian zuzenbide estatua dagoenik ezin da ukatu, baina berau demokratikoa denik oso kuestionatua da. Justizia



DANI BLANCO

“Prozesuan presoek kaleratzeaz eta iheslarien bueltatzeaz gain —guztiena, ez parte bat geratuz iraganean bezala— funtsezkoa da gatazkaren erroi heltzea”.

administrazioaren abiapuntua eskasa da, estatu arazoia nagusitzen denean, jarrera ez demokratikoa agerikoa da.

Epaileen artean, justizia elkarrekin, ba al dago jarrera berririk aro berriaren aurrean?

Ez, edo gauza gutxi, tamalez. Zentzu horretan komeni da gogoratzea, Garzonek judizializatu zuen “dena ETA da” teoria polizialaren kontra epaile batzuk agertu zirela. 4. Sekzioa epaile hauek teoria horren kontrako erabaki judizial batzuk ere hartu zituzten. Auzitegi Nazionala bunker bat da, gotorleku bilakatu da. Finean, gaitz bat da. Batzuetan,

botere eta administrazio judizialean ahots batzuk altxatu dira, baina makinaria hori desaktibatzeke borondate politikoa beharko da. Hemendik aurrera, agian, ahots batzuk entzungo dira egoera politiko berria dela-eta.

Europako esparru judizialean, berriz, jarrera berririk bai?

Momentuz han ere ez. ETArekin azken su-eten iraunkorretik eta behin betiko su-etena bitartean, gobernu aldaketa garaia izan da. Gobernu berriak agian denbora behar du. Ziur aski, Espainiako egoera politikoa egonkortzen bada, jarrerak aldatuko dira nazioartean.



DANI BLANCO

"Entzutegi Nazionala bunker bat da, gotorleku bilakatu da. Finean, gaitz bat da".

Azken urteetan, Espainiako Gobernuaren kontrako erabaki judizial batzuk eman dira Estrasburgon. Baina, funtsean, hango justizia Espainiako botere politiko judizialarekin lerrotatu da. Pentsatu nahi dut, Aieteko Adierazpenak eragin politikoa izango duela.

Egoera politiko-judiziala desaktibatu daiteke? Nola?

Indargabetuz. Auzitegi Gorenak lehen aktibatu zuena kolpe batez desaktibatuz. Noski, ez da erraza, azken 30 urteetan zuzenbidearen teoria eta aplikazioa mutur-muturrera eraman dituzte, ikuspegi errepresiboaren mugaraino. Hain absurdua da, ezen, kasu batzuetan zigor osoa lehenago betetzen dela zigor kondizionala baino. Gure kasuan, egoera muturreko hori 73 presori aplikatu zaie. Horietatik 49 kondena amaituta, bahituta dituzte.

Parot doktrinaz ari zara.

Bai. *Parot doktrinaz* baino, Espainiako Auzitegi Gorenaren doktrinaz. Kasu gehienetan, zigorra beteta eta

kalera irteteko unean, presoek bezperan adierazten zaie doktrina aplikatuko zaiela. 20-25 urte bete ondoren, beste 10 urte gehitzen zaizkie. Hori oso larria da. Presoen kolektiboak jaso duen zigor gogorrena da. 2006an Auzitegi Konstituzionalak jarri zuen indarrean neurri hori *de facto* Loiolako prozesua pil-pilean zegoela. Bizi arteko zigorra da. Irizpide berri hori zuzenbidearen kontrakoa da guztiz. Noski kontestu politiko batean indarrean jarri zuten eta helburua bete dute. Eskandalu izugarria da, orain gutxi Auzitegi Konstituzionalak berak, nonbait interpelatua sentituta, *"todavía es pronto para tratar el fondo"* esan du!

Alegia...

Gu, abokatuok, testuiguru horretan ari gara, askatasun izapideak egiten. Baina hauek ez dira berriak. Baldintzapeko eskaerak aspaldikoak dira. 2003ko legea berriro ondoren, hainbeste zorroztu eta hain urrun eraman zutenenez, zirrikiturik ez dago legea bera aplikatzeko, presoak baldintzapean ateratzeko damutu gabe. Baldintzapean ateratzeko, hirugarren graduan egon behar du presoak, denboraren hiru laurdenak beteta eta "jarrera ona" izan. *"Buena conducta"* delakoa aplikatzean, espetxe administrazioak arbitrarioki edo diskrezionalki jokutzen du. Zer ote da *"buena conducta"*? Izan ere, jarrera on horretan *"responsabilidad civil, colaboración, repudio, perdón..."* kontzeptuak sartu dituzte-eta.

Preso gaixoen egoera berriz nola kudeatzen duzue uneon?

Berdin-berdin. Gatazka armatuak eragindako ibilbidean, makinaria errepresio juridikoa hainbeste garatu dutenez, preso gaixoei ere berdin jokatu dute. Guk, legeak dioenari jarraikiz, presoaren baldintzapeko

askatasuna eskatu ohi dugu. Espetxe sisteman badago irizpide bat: malgutasuna. Egoera ezberdinen aurrean modu ezberdinez aplikatzeko. Espetxe arinduekin egin dute, askatasun kondizionala aplikatu ordez. Halere, askatasuna kondizionala ez emateko baldintza zorrotzak asmatu dituzte. Beraiek sortutako amaraun juridiko hori desegitea arazoa bilaka dakieke orain, edo aitzakia.

(...)

Gainera, preso gaixo larriez gain badago beste multzo handia. Adinez nagusiak dira, espetxe denbora luzea daramate. Preso batzuek 70 urte inguru dauzkate, 20 urte luze daramatzate barruan. Gaixo-gaixo izan gabe egoera larriak bizitakoak. Kolektiboarentzat premiazkoa da muturreko egoeran aurkitzen diren kideak kaleratzea. Eta horretara datoz, une politiko esanguratsu honetan azken hiletako ekimenak.

Euskal Herrian batzeko eskaera egin du EPPK-ko preso bakoitzak. Zer iritzi duzu erabaki horretaz?

EPPK-k azken agirian dioenez, eztabaida prozesu bati heldu dio. Egoera politiko eta estrategia lantzeko erabakia hartu dute eurek ere. Askotan esan dute, Kolektiboak gatazka politikoaren parte eta ondorio den heinean, presoek konponbide demokratikoaren parte aktiboa izan behar dutela. Bere kokapena berriro eta eguneratzeko asmoz ari dira. Kontestu horretan planteatu da eskaera orain, gaixo eta baldintzapean daudenen kaleratzea sustatzeko, Auzitegi Gorenako doktrina indargabetu aldera, baita Euskal Herrira presoak ekartzeko ere.

Artean, bi estatuen jazarpen jarrerak indarrean segitzen du.

Ez da erraza hori eramatea, noski. Ezker abertzalearen erabakiak astindu handia ekarri du politika-gintzara. Euskal Herrian ematen ari diren urratsak barneratzea ez bada erraza, pentsa 1.000 kilometrorra preso dagoen batentzat. Prozesu ezberdinak bizi izan ditugu lehenago ere, definizio edo diseinu ezberdinak izan dituzte. Oraingo honek aurreko bien jokabideak jasotzen ditu, oraingo prozesua

aurrekoen esperientzien bidez ari da garatzen. Ezker abertzalea legez kanpo eta zokoratua izatetik ateratzen ari da. 10 urteren ondoren indar handiz plazaratu da. Itxaropenak handiak dira. Azken bisitetan harreman estua garatu dugu presoekin, eta euren ilusioa eta interesa jaso ditugu. Baina, beste aldean ez dago ezer ordainean, alderantziz: egurra, euroaginduak, estradizioak, aurreko bi urtetan torturaren bidez izugarritzko sarraskiak egin dituzte. Errealitatea hori da, ilusioa bai, baina oinak lurrean dituzte presoek.

Bilbora deitutako euren aldeko manifestazioa kolosala izango omen da.

Lan handia egiten ari dira, leloak erakarrira hasteko. Manifestazioak eragile politikoak mugiarazi behar ditu gobernuetan eragiteko. Ez da testimonio hutsean geratu behar, presio eraginkorra garatu behar da.

Ez zaitut oso baikor ikusten.

Bai. Optimista naiz. Garai politikoak indartsua da. Azken hauteskundetako emaitzak prozesua bultzatzeko lagungarriak izan dira. Indarren berreskuratzeko modukoa izan da. Indarrak batu behar dira beste alde mugiarazteko. Prozesuaren diseinua aldebakarrekoa da hastapenetik, beraz, beste alde behartu behar duzu presoan gaian nahiz auzi politikoan bere jarrera alda dezan. Estatuaren borondate ezak hautu estrategikoa blokeatu ez dezan. Aurreko prozesu politikoetatik desberdintasuna ere presoan auziaren kokapenean dago. Ezker abertzaleak lehen planoan jarri du presoan gaia. Orain

arte bestelakoa izan da, agian presoan gaiak gai politikoak desitxuratzen zuelako. Une honetan, bi planoak jarri dira mahai gainean, presoan gaian urratsak eman ahala bestea elikatzeke.

Eusko Jaurlaritzako Idoia Mendia eledunak, presoek eragindako mina aitortu behar dutela esan du.

Garbiago hitz egin beharko luke. Zein da presoek sortu duten mina? Nori? ETAr buruz ari da?

"ETAKoa ez den preso asko dago. Zer kalte egin diote gizarteari?"

Presoak ETAKoak direla esan du.

Eztabaida interesgarria da. Horren bueltan ari dira. ETak kalteak sortu dituela ez dago dudarik. ETak berak onartu du hori beti, eta ardura politikoak ere bere gain hartu du, bere helburuetan asmatu duenean eta asmatu ez duenean. Eta gogor ordaintzen ari dira ETAkideak, beste aldeak ez bezala, egindako krimen guztiengatik. Preso asko dago ez dena ETAKoa. Zer kalte egin diote presoek gizarteari? Alderantziz galdetu daiteke: presoek zer kalte sortu zaie oraingo legedia aplikatutakoan? Dispersioetik hasita. Espetxe politikak hildako ugari utzi dizkio euskal gizarteari, horretaz ari ote zen Mendia? Eta erantzukizunak?

Gernikako adierazpenean amnistia aipatzen da. Nola ulertu behar da Amnistia gaur egun, zure ustez?

Gaia interesgarria da guretzat ere, denontzat. Batzuetan ez dugu asmatzen hitzen erabilpenean. 1977an Amnistia Legea aplikatu zenetik denbora asko pasa da. Esan dezagun ENAMek ez zuela ontzat eman amnistia, indultu moduko bat izan zen, barkamena. Gauden egoerara iritsi gara. Amnistia etimologikoki amnesia da, ahanztura. Baina egia da ere, hitzak berak bilakabide bat izan duela, finean, amnistia kontzeptu juridiko politikoak da guretzat. Ezker abertzaleak 30 urte luzeko ibilbidea dauka. 1977ko esperientzia hor dago. Orain, egoera politikoak aldatu denean, berriro ere, egokitasun handiz mahairatu da amnistia kontzeptua. Legean ez dela jasotzen? Lehen ezta ere eta *ad hoc* sortu zuten. Auto-determinazioa ere ez da jasotzen. Beste gauza bat da, berau nola gauzatu. Zertaz ari gara amnistiari buruz hitz egiten ari garenean? Amnistiaz hitz egin behar da, kontzeptuan sakondu aldera.

Sakabanaketarekin amaitzea lagungarria litzateke horretarako, noski.

Bai. Eztabaida abiatu da, baina errazagoa litzateke presoak batuta baleude, baldintzak ezberdinak litzateke. Hor dago koska. Erabakiak hartzeko orduan, presoek baldintza egokian egon beharko lukete.

Badago aurrera egitea, hortaz.

Bai. Noski, ezker abertzaleak presoak kaleratzeaz gain, beste osagai bat beharrezkoa dela esan izan du beti. Hau da, gatazka sortu duten arrazoiak gainditu behar direla. Bestela, 1977an gertatua errepikatu daiteke. Amnistia indultu soilean geratzen bada, ez badira baldintza demokratikoak garatzen gatazka politikoak jarraituko du. Hori errepikatu ez dadin, arazo politikoari heldu behar zaio. Presoak kaleratzearekin hustu egiten da arazoaren parte. Nahikoa al litzateke? Prozesuan presoan kaleratzeaz eta iheslarien bueltatzeaz gain –guztiena, eta ez parte bat itzuli gabe geratuz iraganen bezala– gatazkaren erroei heltzea funtsezkoa da, bestela, gure buruari kalte egingo genioke, guztion kalterako litzateke. ■



LUARKITEKTOAK
 hirigintza
 hirigintza aholkularitza
 udal planak
 urbanizazioak
 periferiazioak
 balorazioak
 etxebizitzaren proiektuak
 birgaitzeak
 barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
 Rta Arga Kalea 28, 31014 Iruña
 lua@luark.com

¿A qué hora me lo enviáis?

Zer ordutan bidaltzen bidaliko didazue?

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
 GAZTELANIA | EUSKARA | INGELESA | FRANTSESA | ALEMANA

11itzulpen
 www.11itzulpen.com



KGNZ tresna

Haur txikien euskara garapena neurtzen

Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda izeneko tresna aurkeztu zuten abenduan Mondragon Unibertsitateko, Salamancako Unibertsitateko eta EHUko hainbat irakaslek, Kontseiluak antolatutako jardunaldietan. Tresnaren helburua da haurtxoek euskara nola garatzen duten aztertzea eta balizko atzerapenak garaiz detektatzea.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

ANDONI BARREÑAK (Salamancako Unibertsitatea), Marijo Ezeizabarrena (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Iñaki Garciak (Mondragon Unibertsitatea) *Haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzeko KGNZ tresna* izenburuko hitzaldia eskaini zuten. Abenduaren 16an izan zen, Kontseiluak Donostian antolatu zituen jardunaldietan (*Haur hezkuntzaren garrantzia, euskararen jabeakuntza eta garapenean*). KGNZ tresnaren aurkezpena hiru-eren artean egin bazuten ere, ikerketa taldeko partaide dira ondokoak: Nekane Arratibel eta Julia Barnes (Mondragon Unibertsitatea) eta Margareta Almgren (EHU).

Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda (KGNZ) *Mac Arthur-Bates Communicative Development Inventories* (CDI) tresnan dago oinarrituta, eta euskarara egokituta. Haur txikien hizkuntza garapena ikertzeko azterlariak gurasoei eskatu zieten laguntza. Ikerlariak hiru galdetegi prestatu zituzten, 8-15 hilabeteko haurrentzakoa, 16-30 hilabetekoentzakoa eta 30-50 hilabete artekoentzakoa. Galdetegi bakoitzaren bidez jasotako erantzunekin ikerlariak hainbat elementuri buruzko informazioa lortu nahi zuten. Lehenengoan 493 galdera prestatu zituzten, haurrek zein hitz ulertzen eta esaten zituzten jakiteko, eta keinu bidezko komunikazioa nola garatzen zuten ikusteko. Bigarrenengoan, hiztegiaren



Iñaki Garcia, Marijo Ezeizabarrena eta Andoni Barreña irakasleak, haien lana Donostiako Miramar jauregian aurkeztu zutenean.

eta morfologiaren ekoizpena, esaldien luzera eta konplexutasun morfosintaktikoa aztertu zituzten. 745 galdera zituen galdetegiak. Hirugarren galdetegiaren bidez, bigarren galdetegiko gai berak ikertu zituzten, baita kontzeptu abstraktuak ere. 199 galdera prestatu zituzten ikerlariak. Gurasoek bete zituzten galdetegiaren ideia bat izateko pare bat adibide aipatuko ditugu. Esate baterako, 30 eta 50 hilabete bitarteko haurren

gurasoek galdetegiaren 120 hitzeko zerrenda jaso zuten eta haien umeek horietako zein hitz esaten zituzten markatu behar zuten. Beste atal batean, umeak hitz amaierak esaten hasiak ziren markatu behar zuten gurasoek, hala nola, trene(an), tren(etik), tren(rena) eta abar.


Inguru euskaldunaren eragina

Jakina da haurren komunikazio garapenean makina bat aldagaik


Inguruko euskararen presentziaren arabera

HAURREN EMAITZAK


EKOIZTEN DUTEN KEINU KOPURUA




ULERTZEN DUTEN HITZ KOPURUA



MORFOLOGIA EKOIZPENA



EKOIZTEN DUTEN HITZ KOPURUA



%90: haurren ingurua ia erabat euskalduna da
%90-60: euskara gaztelania baino gehiago

%60-40: euskara eta gaztelania kopuru bertsuan
%40-10: euskara gaztelania baino gutxiago

Iturria: Haur euskaldunen komunikazio garapena neurtzeko KGNZ tresna

datuak goiko taulan). Alabaina, adin horretatik aurrera, eta batik bat hiru urte eta erditik laura bitartean, haurren komunikazio garapenean aldeak nabaritu zituzten. Bi urte eta erdiko haurren artean, aldakortasuna –haurren arteko desberdintasunak euskaraz komunikatzeko gaitasunari dagokionez– %5ekoa izan zen. 3 urterekin aldakortasuna %20koa zen eta haurrak zenbat eta helduago portzentajea are handiagoa, %30era iritsi arte. Iñaki Garcia ikerketa taldeko kidearen ustez, datu azpimarragarria da, “ikusitako ez dago sexuaren aldagaia kontuan hartzen badugu aldakortasuna zenbatekoa den. Askotan hitz egin dugu ea komunikatzeko gaitasunean zenbateraino eragiten duen neska edo mutila izateak. Bada, ikerketa honetan aldakortasuna, asko jota, %3koa da. Euskara-inputa aldagai hartuta berriz, aldakortasuna %30era iristen da”. Ikerketak haurren inguruan erabiltzen den hizkuntzak duen pisua azpimarratzen zuen, bai baitakigu umearen euskarazko komunikazio garapenean eragina duela. Horregatik, haurren inguruan euskara erabiltzearen garrantziaz jabetu beharra nabarmendu zigun Garciak.

Ikerketan, euskara-inputak nabarmen eragin duela ikusi dute, ea ume helduagoekin ikerketa bera egiteko asmorik duten galdetu genion: “Noski, emaitzek jakinmina pizten dute. Dena dela, ikerketa metodo bera ezingo genuke erabili, beste tresna bat atondu beharko genuke 4 urtetik aurrerako haurrei euskaraz bizi den ingurua edukitzeak ala ez, euskararen garapenean nola eragiten dien ikusteko”.

Informazio gehiago:
KGNZ 1 eta 2 erosteko:
www.ueu.org/denda eta
bertsio laburrak ikusteko:
www.uztaro.com



Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala

'Praza Pública', galegozko egunkari digital berria

GALIZIAKO idazle eta kazetari talde batek *Praza Pública* agerkari digitala sortu du. Galego hutsean idatzia, paperezko hainbat hedabidek (*Xornal de Galicia*, *Galicie Hoxek* eta *A Nosa Terra*) lagatako hutsunea bete nahi du proiektu berriak. Hilabete honetan jarriko dute abian.

UEUk ere neurriak hartu beharko ditu

ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZA OSOA, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sai-



lak ematen ziona, galdu du Udako Euskal Unibertsitateak. Lehenengo aldiz laguntza instituzionala 1998an lortu zuen, bi milioi pezeta. 2011n 177.840 euro jaso zituen; aurrekontuaren %25 osatu zuen. UEUren esanetan Hezkuntza sailburuaren

erabakia izan da laguntza oso-osorik kentzea. UEUk bere webgunean dioenez, elkartearen jardueraren azterketa sakona egiteaz gain, egiturazko murrizketak (langileria eta egitasmoak) ekarriko ditu. Lanpostuen etete zuzena ekarriko du, murrizketak lanaldietan eta ERE bat martxan jartzea.

2012an 40 urte beteko ditu Udako Euskal Unibertsitateak.

10.000 sarrera gehiago Wikipedian

EUSKARAZKO WIKIPEDIAK 10.000 sarreratik gora jaso ditu kolpera. Elhuyar Fundazioak Lur Entziklopedia paperezkotik 10.000 artikulutik gora aldatu ditu digitalera. Eki-men horren sustatzailea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza izan da. Gaur egun 120.000 sarreratik gora ditu Euskarazko Wikipediak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Borboitarren opakotasun erreala

Juan Carlos Borbón erregearen suhi Urdangarinen auziak mahai gainean jarri ditu Errege Etxe espainiarraren diru eta negozioak. Espainiako Estatuko zergadun guztiok mantentzen dugun etxea da, baita euskaldunok ere, monarkikoak ez izan arren, erregea aukeratu ez dugun arren eta Euskal Herri libre eta independentearekin zerikusirik ez duen arren. 35 urteko opakotasunaren ondoren, etxe horrek dio orain gardena izango dela bere kontuekin. Joan den astean aurkeztu zituen. Opakotasuna mantendu egin da. 2011n, Borboiek 8,43 milioi euro jaso zituzten Estatuko Aurrekontuetatik, gure poltsikotik. Erregeen eta Asturiasko Printzeen gastuak ordaintzeko kopuru hori, aitzitik, Espainiako Koroara aurrekontu publikoetatik bideratzen denaren zati txiki bat besterik ez da. Eraikinen mantenua, enplegatu askoren nomina (130), baita militarren, guardia zibilen, gidari ofizialen eta bidaien kostuak ere, Ondare Nazionalak, Administrazio Publikoen Ministerioak eta Atzerri Ministerioak ordaintzen dituzte. Zenbat milioi euro izango ote dira horiek?

Forbes aldizkariak zioen monarka espainiarrak 1.790 milioi euroko fortuna duela. *El País* egunkariaren arabera, Zarzuelako iturri batek zera segurtatu zuen: "Erregeak gutxi gastatzen du eta ondo inbertitzen du". Nola gastatuko du dena ordainduta badu! Nola eta non inbertitzen du? Zeinek aholkatzen du? Gardentasunez argitu beharko luke hori, zeren eta zurrumurrutik harago doaz paradisu fiskalen inguruko susmoak, Urdangarinen eta Espainiako Errege Etxearen diruaren aterpe liratekeenak. Ez da nahikoa azaltzea 8,43 milioi euro gozo horiek zertan erabili dituzten. Azal dezatela, baita ere, zertan erabili dituzten Ondare Nazionalaren eta Kanpo eta Administrazio Publikoen Ministerioetako partidak. Eta azkenik, azal dezatela zer harreman duten paradisu fiskalen munduarekin!

Juan Mari Arregi



BAHEA

Paul Bilbao eta Garbiñe Petriatik *Garan* esanak: "Batetik, Behatokia euskaraz bizi nahi eta oztupoak izan dituzten herritarren artean erreferente garrantzitsua bilakatu dela erakusten du [Behatokiaren hamar urteko lanaren bilketak]. Eta hori poztekoa da. Bestetik, Behatokia ahalik eta azkarren atek ixteko bokazioarekin jaio zen. Baina 2001. urteko ondorioak eta 2010. urtekoak errepikatzen direla ikusita, alegia, hizkuntza-eskubideak Euskal Herri osoan eta administrazio guztiek urratzen dituztela baieztatuta, zalantzarik ez dago bere lana egiten jarraitu beharko duela Behatokiak".

Mendekua ala elkarbizitza

MOBILIZAZIO erraldoia espero da datorren larunbatean Bilbon euskal presoen eskubideen alde egingo den manifestazioan. Horixe baita lehenik eta behin, eskubide kontu bat, gainerako preso guztiek dituzten eskubideak euskal presoentzat ere normalak izan daitezela. Presoena ETaren aurkako tresna izan da etengabe Espainiako Gobernuarentzat eta pertsona gatibuen eskubide urraketa erabili izan da borroka horretan; areago, haien senitartekoen eskubideak ere urratuak izan dira sakabanaketa politika medio. Milaka pertsonen sufrimendua areagotu du Espainiako espetxe politikak, zentzu instrumentalez eta mendekuz. Bada ordua espetxe politika bakearen zerbitzura jartzeko.

Ez dago gatazka politiko bortizik munduan bere garapenean sortutako presoak espetxean mantentzen dituenik. Hemengoa ez da salbuespena izango. Hori bai, presoek askatze prozesua bihurtu da. Baina ziegetako ateak itxiz gero, euskal gizartearen presoak askatzearen aldeko olatua gero eta handiagoa izango da, horretaz ere ez da zalantzarik. Kontua da nola erantzun dion aldarri horri PPK. Eta pentsa liteke Mariano Rajoyk emango duela urratsik, are gehiago horietako asko hain errazak direnean. Txanponaren beste aldea sektore eskuindar eta atzerakoienetan da eta hauek ere arretaz jarraituko dute presoek eremuaren egingo den edozelako urrats; horretarako komunikazio esparru zabala dute gainera.

Azken finean, orain arte bezala, bi logika egon daitezke hemen kontrajarririk. Euskal gizartearen logikatik argi da presoan auzia lehenbailehen konpontzea interesatzen dela, hau konpondu barik ez delako



ARGAZKI PRESS / L. F.

normalizazio politikorik izango. Eta Madrildik begiratuta? Bada, logikoa litzateke pentsatzea han ere hori komeni dela, euskal gatazka korridorean zabalik geratzen diren ateak apurka ixten joatea litzatekeela egokiena, beren indarrak buru belarri ekonomia krisira bideratzeko. Baina Madril hori baino konplexuagoa da eta han bide ugari gurutzatzen dira.

Madrilgo logikatik, garrantzitsuena da erakustea Estatuak ez duela amore ematen eta legearen inperioa beteko dela edozeren gaitetik. Denontzat da ezagun, alabaina, legearen inperio hori egin eta berregin egiten dela etengabe eta legearen interpretazioa nahi bezain estu edo zabal egin litekeela. Baina Estatu batek eta mandatari batek arazo handiak dituenean —krisi ekonomikoa, adibidez—, behar ditu bestelako zementu gaiak herritarrek batzeko eta kasu honetan kohesio osagai horietakoa izan daiteke euskal gatazka eta, une zehatz honetan, bereziki presoena. Horra arriskua.

PRESOEK eurek ere urratsak eman beharko dituzte eta dagoeneko ematen ari dira, batzuk oso garrantzitsuak, esaterako Gernikako Akordioarekin bat egitearena.

Azkenean, pertsona bakoitzaren eskaeretan oinarrituko dira presoek eskubide eta askapen prozesu guztiak. Presoek era kolektiboan hartuko dituzte beren erabakiak, baina preso bakoitzaren eskaerak bideratuko ditu horiek. ETA eta Estatuaren artean eman den logika bera emango da hemen ere, Estatuarentzat berak garaitu du ETA, baina ETarentzat ez da halakorik gertatu, borroka armatua berak utzi duelako, orain bere helburu historikoak lortzeko tresna egokiena ez delako. Presoen gaia garrantzitsua da bake prozesuan, baina presoek parte hartzea ezinbestekoa da hau arrakastaz eman dadin, besteak beste elkarbizitza begira ETak sortutako biktimekiko eman beharreko mugimenduetan presoek parte hartzea giltzarri delako.

PPk eta Mariano Rajoyk presioa eta laguntza beharko dute presoek bide hau egiteko. Sinesgaitza da euskal gizartearen presio barik ezer lortuko denik, eta guztiz sinesgarria da EAJren eta PPren artean euntzen ari den harreman sarea lagungarria izan daitekeela bake prozesua bideratzeko. Rajoy eta Urkullu aspaldi hasi ziren harremanetan, 2012ko Bizkaiko eta Arabako diputazioen aurrekontu akordioak hori dira, Kutxabankeko agente banaketa... eta logikoa litzateke EAJren esku baliagarria izatea PPK espetxe politikan urratsak eman ditzan. ETaren jardun armatu barik, PPK presoek eremuan ematen ez dituen urratsak presoek posizioa sendotzen du etengabe; lehengo jardun armatuak zokoratzen zuen presoekiko elkartasuna, orain PPren mendekua eta jarrera itxiak barreiatuko egingo lukete.



Russel auzitegia nuklear zibilaren krimenentzako

1945etik gaurdaino 2.400 leherketa nuklear militar jasan ditu munduak. Gehi 5 eta 6 mailako istripu bana Britainia Handian eta Sobiet Batasunean 1957an, 7koa Txernobylen, 7ko hiru adinakoa Fukushima... Atomo militar zen zibil horien ondorioak ez dira kontabilizatu, ordea. Ez baita azterketa epidemiologiko txukun bakar bat egin gaur artean.

ISAO HASHIMOTO (1959) ARTISTA japoniarrak egindako film labur hau ikusi beharra dago: *Nuclear Detonation Timeline "1945-1998"*, leherketa nuklearren kronologia. 1998 bitartean egin diren 2.053 leherketa atomikoak planetaren mapa gainean azaldu ditu Hashimotok, leherketa bakoitzeko argi eta hots bana. Hamar minutuz *morse* kodearen hotsak osatuz ikusiko ditugu eztanda egiten froga eta istripu guztiak: AEBen 1.032, Sobiet Batasunaren 715, Frantziaren 210, Britainia Handiaren 45, Txinaren 45, Indiaren 4 eta Pakistanen 2. Faltako da baten bat, Israelena edo.

Nork defenditu lezake leherketa guzti horiek, gehi hain ikusgarriak izan ez diren bestelako isuri nuklearrak, munduko jendeen osasunean ondoriorik izan ez dutenik? Eta hala ere, bonbaren egileek bakerako atomoen (*atoms for peace*) propaganda eginez errektore militarretako teknologiari etekina ateratzeko zentral atomiko zibiletan birziklatu dute.

Horretarako, energia atomikoaren arrisku eta kalteak estali behar izan dituzte atomoaren sustatzaileek. Egia ezkutatuari zirriztua irekitzeko 2011 bukaeran, Fukushima hon-damendiaren urtean, Europako intelektual andana batek nazioarteko auzitegia sortzea proposatu du, nuklearraren arduradunak epaitzeko.

15 pertsonalitatek sinaturik aurkeztu da *Pour un tribunal Russell contre les crimes du nucléaire civil* manifestua *Les z'indigné(e)s* aldizkari berrian. Sinatzaileen artean daude Serge Latouche, desahazkudearen teoriko nagusietakoa, Corinne Lapage ministro izana, Alain Gras antropologoa eta Pierre Rabhi, agronekazaritzak famatu egin duen laborari idazlea.

Intelektualok diotenez, energia atomikoaren erabilerak lehen urrats handia 1945eko abuztuaren 6an eman zuen moduan, AEBetako armadak Hiroshiman *Little boy* bomba zapartarazitakoan, 1986ko apirilaren 26an Txernobyngo desastreak markatu zuen jauzi berezi bat.

Txernobyngo Lenin zentrolean 4. errektoreak eztanda egin zuenean, hango erregai atomikoaren desintegrazioak ez zituen isuri bakarrik gas eta aerosol kutsatuak, ordura arteko bonbek egin bezala; ordukoan partikula bero solidoak barreiatu ziren, izaki bizidunen organismoetan sartuz gero barne erradiazio handiak eragiten dituztenak.

Txernobylek erakutsi duenez, lehen uneko erradiazio handien kalteen ondoren datoz kutsaduraren epe luzeko ondorioak. Partikulak sakabanatu dira leherketako gunetik ehunka edo milaka kilometrotara. Eta ekosistemaren barruan isotopo-

Bloomberg agentziak banatu irudi handian, "Asakoren etxea" Oma herrian. J-Power erraldoiak 1982an erabaki zuenetik hor errektore nuklearra eraikitzea, Asako Kumagai borrokatu zen eragozteko. Urteotan, herritar gehienek etsi duten arren, Asakok ez zuen lurrik saldu, bi milioi dolar eskainita ere. Asako 2006an hilik, haren alaba Atsuko Ogasawarak ere uko egiten dio lurrak saltzeari: "Pertsonaren bizian dirua ez da dena, ez dut saltzeko asmorik", deklaratu du. Baina alaba jaiotetxean bizi ez denez, bidea itxi nahi dio konpainiak, inor ez dabilelakoan, etxea desjabetzeko. Japoniako militante antinuklearrak kanpainen daude Asakoren etxea zutik atxiki-tzeko: mundu osotik gutunak bidaltzea eskatzen dute, postaria egunero joan dadin bertaraino. Idatzi helbide honetara: Asako House. Aza-kookuto 396. Oma-machi. Shimokitagun. Aomori Pref.039-4601.Japan.

ok migratu egingo dute: euriarekin lurpera, landareek sustraitik barnertuta berriro lurrazalera, abereen barruan batera eta bestera...

Egiaren estalketa programatua

Txernobyngoak eragin dituen kalteen neurietan adituak bat ez datoz arren, erradiazioek gizakien hezur-mamietan sortu kalteak aspalditik daude deskribaturik. Sistema endokrino osoa ukitzen du, hormona sistema hondoratuta. Hortik aurrera, jakina da zirkulazio organoen gaixotzeak hil zituela Ukrainako zentrala egonkortzeko sakrifikatu ziren *likidatzaile* haietako asko, inguruko herritarrei zahartze-goiztiarra ekarri die, Txernobyngo labe erradiaktiboa hozteko usatutako milaka tona berunek saturnismoa ekarri die beste askori.

Baina leherketaren ondorengo egunetan erradiazio kopuru izugarriak –Hiroshimakoak baino askozaz handiagoak– kolpatu baldin bazituzten asko, beste milioika jende gehiagok jaito eta bizi beharko dute 90 estrontzioak eta 137 zesiak 300 urtez kutsatuko dituen lurrotan, plutonioak eta amerizioak milaka urtez pozoituta edukiko dituenetan. Belaunaldiz belaunaldi.

Pour un tribunal Russell agiriaren sinatzaileek salatu dutenez, munduko agintariek estali egin dituzte ger-



takizunen ondorioak. European ez da antolatu Txernobylgoak eragin kutsaduraren neurketa egokirik eta informazio hori betirako galdu da. Patologiak aztertzeko antolatu ziren aditu taldeak desegin egin dituzte. Gehiegi miatzen zuten mediku eta zientzialariak pertsegitu eta espetxeratu. *Likidatzaileen* osasunaren jarraipen txukunik ez da egin. Epidemiologia egiten aritu direnak, denetara milioi bat heriotza eragin dituela ondorioztatu zuten Yablokov, Nesterenko eta besteak, esaterako, gutxietsiak izan dira eta laguntzarik gabe utziak.

“Txernobylgoak zulo bat bat utzi du gizakien memoria sinbolikoan” idatzi dute agirian. Katastrofe atomiko bat hasi bai baina noiz buka-

tuko den inork ez dakienez, “ez dago kultura bakar bat apustu horri aurre egiteko”.

Atomoaren inguruko lehen iruzur handia Japonian gertatu zen, Hiroshima eta Nagasiko bonben ondoren. AEBetako armadak talde berezi bat antolatu zuen han erradiazioek eragindako kalteak aztertzeko, baina, Japoniako gobernu galtzaileak onartuta, han ikasitakoa sekretupean egon da hamarkada luzez.

Berrikitan telebista frantsesak eskaini du Marc Petitjeanen *Blessures atomiques* (zauri atomikoak), orain arte ezkupean egondako informazio eta irudi ikaragarriekin. Internetez eskueran dago *Le web 2 zéro* blogean, frantsesez. Hori ikusirik

ohartzen da bat Nagasakiz geroztik atomoaren sustatzaileek oso ondo ezagutzen zituztela erradioaktibitatearen epe luzeko kalteak... 1986tik landa Txernobyl inguruetan ikusten ari garenak. Hala ere, segi egin zuten.

Baina Txernobylgoa berriz gertatzekotan, eta hala jazo da Fukushima, larriago, ezingo dute agintariekin erabili sobietarrek orduan zeukaten *abantaila*: alderdi bakarreko idazkari nagusiaren agindura 800.000 likidatzaile eta behar adina milaka langile eta soldatu mobilizatzea. “Demokrazia liberal batean boluntario gutxi egongo da oinaze hain larrien artean hiltzeko prest”, diote agirian.

Hanna Arendtek “gaizkiaren hutsaltasuna” (*The banality of Evil* ingelesez) kontzeptuarekin azaldu zuen gizadiaren kontrako krimenak jende arruntek burutzen dituztela egiten dutenaren helburuez galderarik ez egiteagatik, agintariei itsuitsuan jarraitzeagatik. Atomo zibilaren Russell auzitegia antolatu beharra aldarrikatzen dutenen aburuz, Mendebalde aberatsean gaizkiaren hutsaltasuna orokortu egin da eta hemengo sistema politikoak totalitarismo demokratiko bilakatu dira, gizarteak betiko hondamendira darmatzatenak.

Horregatik proposatu dute Russell auzitegi berria, AEBk Vietnamen burutu krimenak epaitzeko 1966an antolatua bezalakoa. Geroztik antzeko gehiago izan dira, Txileko estatu kolpeaz, Irakeko gerraz, eta Palestinaz. Honek epaitu beharko lituzke Txernobylgoa eta Fukushima... Fallujahkoa ahaztu gabe. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Inma Gomila

Deustuko alaba, Urruñan ama, gureratutako dama

2011ko abenduaren 22an hil zen Inma Gomila, hamarkada oso batez ARGIAren eta Ametzagaiña taldearen garapenean parte hartu zuen euskaltzalea. ARGIAko lankideez gain, kolaboratzaile eta irakurle askok ezagutu zuten Inma, eta Iparraldeko ikastolen munduan ere pertsona ezaguna izan da.

INMA GOMILA CARRO 1957an jaio zen Bilboko Deustuan. Ekonomia eta Enpresetako zientzietan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Oso gazterik administrazio eta finantza zuzendaritzako ardurak eman zizkioten Bilbon, Iruña eta La Granja kafetegiak kudeatzen zituen ostalaritza enpresan, eta ondoren Irunen aritu zen, Mataderos Monteron.

1988an iritsi zen ARGIA astekariak parte hartzen duen enpresa taldera, Ametzagaiñara, orduko Apika informatika enpresaren eskutik. Administrazio eta finantzen ardurak izan zituen hamarkada batez.

Astekari honen proiektuak eta asmoak bezala, bizirauteko zailtasunak barru-barrutik ezagutu zituen urte horietan Inmak. Proiektuen artean, ARGIArentzako eta Antza inprimategiarentzako egoitza berria aurkitu eta antolatu beharra zegoen, azkenean Lasarte-Oriako industrialdean mamitu zena. Eta kasik horrekin batera *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera etorri zen.

Euskaldunon Egunkariaren prestaketa lanetan parte hartu zuen eta 1990eko abenduan kazeta plazaratu zuen hasierako zuzendaritza ekipoa aritu zen, 1991ko ekainean kargua utzi zuen arte. Berrituzi zen Ametzagaiña taldeko enpresen kudeaketara, lanak aurrera ateratzeko ohiko kemenarekin eta ideia ezkertiarak defendatuz beti ere.

Urte horietan familia osatua zuen 1985etik taldeko enpresen informatika-buru zen Simeon Barrosorekin. Bi haur ekarri zituzten, Odei eta Orhi. Geroago beste bi mutiko hartu zituzten etxean, Migel eta Sebas.

Hondarribian bizi ostean, Urruñan egin zuten etxea. Inmak Urruñako ikastola marxan jartzeko kanpaina eta lanetan parte hartu zuen. Urruñako ikas-

ARGIA



Inma Gomila, 1997ko argazki batean.

tola auzapezaren eta erakunde gehien nahiaren kontra egin zen, auzolanean, dirua biltzeko hainbat ekin-tzarekin –ikastola eraikitzeko harriak euskaltzaleei eskaintzeko kanpaina ezaguna izan zen–; eraikuntza bera langile boluntarioek jaso zuten. Denbora batez Seaskako zuzendaritzako kide ere izan zen Inma.

ARGIA eta Ametzagaiñan mende hasiera arte jardun zuen. 2001ean berak eta Siomeon Barrosok Diana Teknologia informatikako zerbitzu enpresa sortu zuten; enpresa-idea onenaren Toribio Etxeberria saria irabazi zuen proiektuak.

Baina hortik gutxira, Juan del Olmo epailearen aginduz *Euskaldunon Egunkaria* ixteko Guardia Zibila 2003ko otsailaren 20an antolatu operazioan atxilotu zuten, Irunen muga pasa eta Hondarribiako aireportura zihoala. Bost egunez inkomunikaturik egon ostean 18.000 euroko fidan-

tza ordainduta utzi zuten kalean. Ez zen epaitua izan, askoz lehenago auzitegiak aferatik kanpo utzi zuelako. Tortura salaketarik aurkeztu ez zuen arren, Inmaren lagunek jakin zuten oso bortizki tratatu zutela.


2010aren hondarrean azaldu zizkion sendagileak gaitz larri baten lehen zantzuak. 2011ko hasieran operatu zuten. Urte zail honetan berarekin egon direnek diotenez, gaixotasuna gainditzeko gogor borrokatu da eta ez du etsi hil baino aste gutxi lehenago arte. Abenduaren 22 ilunabarrean zendu zen. 24an, Gabon egunez, erre zuten Errenteriako Zentolengo beilategian, azken agurra jaso ondoren.

ARGIAk lerro hauekin agurtu nahi du Inma Gomilaren oroimena, eta bat egin du bere lehengo eta oraingo lankideek, lagunek eta batik bat familiak bizi duten tristurarekin. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Oinkari dantza taldea

ari du

5 DVD opari

www.baga-biga.com

3



Artez euskara zerbitzua

2012
10 urteagenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Taula eta Egutegia 2012

Taula bat
egutegiarekin opari

www.argia.com

5



AZKEN IRABAZLEAK (2303. Argia)

TOLOSA INDOOR KARTING

- Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)
- Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)
- Idoia Ormaetxea Irleta (Durango)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Eneko Maiz Ganboa (Orexa)
- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)
- Maria Jose Etxaide Ibarguren (Bergara)

EKAINBERRI

- Joseba Ituarte Arkotxa (Ondarroa)
- Miren Abalde Alzuart (Donostia)
- Isabel Razkin Lizarraga (Uharte-Arakil)

ARTIUM Arte garaikideko euskal zentro museoa

- Josu Martinez Martinez (Bilbo)
- Maritxu Etxezabal Larrañaga (Azpeitia)
- Auro Ansorregi Alzibar (Mutriku)

MUNDUKO IPUINAK

- Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
- Jon Caballero Gomez (Irun)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

